

# HADE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

**244. Zenb.**

1995.eko urtarila  
335 pta./15 libera  
(B.E.Z. barne)

**NAFARROAREN  
HAIZEBERRITUA**

**Aldi baterako familia berria**






## AITOR FURUNDARENA



ARGAZKIA: X. ELGEZABAL



**2** Aitor Furundarena Ordizian hasi zen **soinua** jotzen. Rosario Balerdi zuen irakasle. 17 urterekin Carlos Iturrালের akademian joan zen ikastera, Hondarribian. Garbiñe Balerdi ere izan zuen irakasle. Parisen zegoen 20 urterekin. Aurretik konposizioa ikasi zuen Donostian. Parisen hiru urte pasa zituen ikasten eta kontzerturen bat ere eman zuen. Copenhagen ere egon da urte batez. Parisen Frantziako Orkestra Nazionalarekin jo zuen **behin**. Duela gutxi Estrasburgon «Les Jeunes Solistes» izeneko orkestrarekin jo du. Parisen ikasketak bukatu zituenean, ikaslerik onena izendatu zuten **aho batez**, eta **aipamen berezi** bat eman zioten.

Garrantzi handiko lehiaketetan hartu du parte: Parisko Nazioarteko Lehiaketan hirugarren atera zuen 1991n eta Klingentaten, Alemanian, txapelkun 1992an, eta Arrasaten abenduan, hau ere **nazioartekoa** da, bigarren gelditu da italiar baten atzetik eta errusiar baten aurretik. Baina beste txapelketa batzuk ere irabazi ditu **gurean**.

Konpositore ere aritua da. Adibidez, trikitixan. Epelde anaiatzat fandango bat egin zuen 1993an, eta Euskadi Irratiaren Trikitixa Txapelketan irabazi egin zuten sail horretan. Orain disko bat prestatzen ari da. Bere burua promozionatzeko egin nahi du diskoa 24 urteko gazte honek. Oraingoz ez dauka **atzerri** itzultzeko asmorik. Ikastera ez behintzat, jotzera **agian** bai. Entzun ere egiten du musika: «Dena gustatzen zait, bakalaoa **ezik**» esan digu. Ba guk uste genuen bakalao hori euskal musika zela. Ez al duzue inoiz entzun «sardiña-bakalao» hura?

**SOINU.** - Esku-soinua. Acordeón.  
**BEHIN.** - Una vez.  
**AHO BATEZ.** - Gogo batez, iritzi batez. Al unísono.  
**AIPAMEN BEREZI.** - Mención especial.  
**NAZIOARTEKO.** - Internacional.

**GUREAN.** - Gure artean.  
**ATZERRI.** - Erbestea. Extranjero.  
**ITZULI.** - Bueltatu. Regresar.  
**AGIAN.** - Beharbada, akaso. Tal vez.  
**EZIK.** - Salbu. A excepción de.

## IKUSMIRAN ERREPORTAIA ELKARRIZKETA

## ERREPORTAIA LABURRAK 2 ERREPORTAIA BAI, ESAN ELKARRIZKETA PORRUSALDA 2 ERREPORTAIA HAU MUNDUA 2 DISKOAK 2 3 LIBURUAK 3 ZOKOMIRAN

## ERREPORTAIA EZETZ ASMATU 2 ABESTIA ERREPORTAIA IPUINA

## JOLASEAN ZINEA

## KOMIKIA SOLUZIOAK HOROSKOPOA

|                                                                      |             |
|----------------------------------------------------------------------|-------------|
| Aitor Furundarena 2                                                  | 2           |
| Baserriko jeneroaren suspertzea 3                                    | 4,5         |
| Barbara Torres: «Oso errotua daukagu gurasoak direla haurren jabe» 3 | 6,7,8,9     |
| Argizaiola, hildakoen argia 3                                        | 10,11       |
| .....                                                                | 12          |
| Gaur aspertuta, bihar gaisorik 2                                     | 13          |
| .....                                                                | 14,15       |
| Xebe Diez: «Oso gutxitan egiten dugu kale» 2                         | 16,17       |
| .....                                                                | 18          |
| Aldi baterako familia berria 3                                       | 19,20,21    |
| .....                                                                | 22          |
| .....                                                                | 23          |
| .....                                                                | 24          |
| Maite Idirin :«Emakumeak ere bagaude euskal kantuaren historian» 3   | 25,26,27    |
| Nafarroaren haizeberritua 3                                          | 28,29       |
| .....                                                                | 30,31       |
| Erreguetan ari nintzala 2                                            | 32          |
| Zineak 99 urte 3                                                     | 33,34,35    |
| Argiñanoko txahal-ebasleak (Rufino Iraola) 3                         | 36,37       |
| .....                                                                | 38,39       |
| Argiaren maisu, argiaren lagun diren horiek (Begoña del Teso) 3      | 40,41       |
| .....                                                                | 42,43,44,45 |
| .....                                                                | 46          |
| .....                                                                | 47          |

### HABE MAILAKA IRAKURRI


Irakurle hori:

Dagoeneko badakizu aldizkari honetako erreportaiak eta zenbaki bat dutela artikuluen zailtasuna adierazteko. Beraz, eta HABEren programazioa oinarri, zailtasun-mailak 1 2 3 4 zenbakiak ipiniz adierazten jarraituko dugu. Dena den, ez nahastu programazioaren urratsekin.

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna



© Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorra: HABE.  
Tel. (943) 41 26 00  
Faxa: (943) 41 26 01  
ERREDAKZIOA:

Iñaki Ugalde  
Asis Eizmendi  
Ion Imanol Iturrioz

MARRAZKIGILEA:

Enrike Larrarte

AZALEKO ARGAZKIA:

Xabier Elgezabal

IRARKOLA:

Artes Gráficas  
Rontegui S.A.L.

LEGEZKO GORDAILUA:

BI-2251/81

ISSN: 0212-6788



## BASERRIKO JENEROAREN SUSPERTZEA

**3** Azken urteotan ekonomiak gorabehera **handixeak** izan ditu, eta batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago, denok **nozitu** izan dugu egoera hau. Bestalde, Europako Ekonomi Elkartean sartzeak alde onak ekarri baditu ere, sortu diren kezkak ere ez dira **makalak**, **ez direnez**. Euskal nekazarien egoera da kezkagarrienetako bat, oso zail egiten baitzaie kanpoko jeneroarekin **lehian** aritzea, eta baita supermerkatuekin ere. Europako Ekonomi Elkartek «kuotak» ezarri ditu jenero askorentzako, eta bestalde, **bezeroarentzat** oso eroso da supermerkatua joatea. Baina arazoak konpondu egin behar dira, eta euskal nekazariak badute non saiaturik, beren izerdiari **etekina** ateratzeko aldera. **Apustua**, adituen esanetan, argi dago: kalitatea, jeneroa hobetu behar da.


### Azoken arteko lehia

Aspalditik azokak izan dira lekurik aproposenak baserritarrek bezeroaren aurrean beren jeneroa aurkezteko. Baina hauek ere krisiaren eraginpean daude, eta aldatu beharrean ikusi dute beren burua. Gurean, Ordiziakoa, zaharrena, Tolosakoa, Atharratzekoa eta Gernikakoa dira ezagunenak, behar bada. Baina garai hauek tradizioa baino zerbait gehiago behar du irauteko eta lehiatzeko, eta, ikerketek diotenez, **aldaketak** onartu egin beharko dituzte. Ordiziako Udalak, adibidez, ikerketa bat egin dezala proposatu dio enpresa bati, herriko azoka suspertzeko asmoz, edo, bestela esanda, egungo egoerari aurre egitekotan. Badirudi asteburuetan Label kalitatezko jeneroa indartu nahi dela, baina asteazkeneko feriarik **muzin** egin gabe.

Tolosako feria ere gogotik ari da larunbatetan, eta dagoeneko

hasiak dira zenbait bi herri horien arteko lehia aitatzeko, «beldurra» hitza ere entzun da bi herrietan. **Beldurra beldur**, edo errespetua errespetu, Tolosako feriak bere estetika hobetzeari ekin dio. Adibidez, baserritarrei, bai letxugak, bai intxaurrak, bai

babarrunak hobeto aurkezten erakutsiz. Tipulak «brillo» handiagorekin aurkezten ere ikasi dute Tolosarako bidea hartzen duten baserritarrek. Eta **emaitzak** badirudi bide onetik doazela. Bezeroak behintzat ugaritu egin dira, ugaritu egin direnez, eta



**SUSPERTU.** - Eragin, ernarazi. Estimular.

**HANDIXE.** - Handi+xe. Handi samarra.

**NOZITU.** - Jasan, pairatu. Soportar.

**MAKAL.** - Ahula, txikia.

**EZ DIRENEZ.** - (Esaldia indartzeko erabiltzen den molde) Desde luego que no, vaya que no.

**LEHI.** - Competencia.

**BEZERO.** - Cliente.

**ETEKIN.** - Mozkina, probetxua.

**APUSTU.** - Erronka. Desafío, apuesta.

**ALDAKETA.** - Alda(tu)+keta. Cambio. Era berean: azterketa, hilketa, erakusketa...

**MUZIN EGIN.** - Arbuiatu. Rechazar.

**BELDURRA BELDUR.** - Beldurra aparte, beldurra alde batera utzita.

**EMAITZA.** - Ondorena, emaria.. Resultado.





hala berean baserriar/saltzaileak ere. Arduradunek argi eta garbi ikusten dute beren **eginbeharra**: «Marketina landu behar dugu, irudia azken finean».

### I. Ardiki-eguna

Bistan da baserriko jeneroa gero eta gehiago ari dela zabaltzen gure artean. Aurrerapen hau kanpaina eta lehiaketan bidez etorri da. Zaldibian ospatu zen «I. Ardiki-eguna» da zabalkunde horren seinale aproposa. Ardia eta ardiaren «**eratorriak**» izan ziren jaun eta jabe, bertako mondejuarekin batera, noski! Artzainen beste zenbait jenerok ere izan zuten lekua: **artilezko hariak**, eta gazta **«ketuak»** esate baterako.

Baina batzuetan nekez **erdiesten** du jenero batek bezeroaren **onespena**. Bestela, ikusi zer gertatu zitzaion egun hain miretsia den mondejuari. Mondejuak aspalditxo egiten ziren Zaldibiako baserrietan, baina bertakoek **zatar** xamar **irizten** zioten herriko tabernatan saltzeko. Kanpotarrek, Zaldibiara etortzen zirenean, mondejua eskatzen zuten tabernatan, eta erabat famatu egin zuten inguru hartako produktu hori. Eta bertakoek ikasi egin zuten eurek egiten zutena estimatzen... Beharbada, baserriko jenero bati baino gehiagori ondo letorkioke

kanpokoek famatzea, gero bertakoek indartzeko.

### Kalitatezko Labelaren bila

Zorionez, baditugu Labela duten hainbat jenero: gazta, piperrak, **zainzuriak**...Eta azoketara joan besterik ez dago beren tartetxoa lortu dutela ikusteko. Horrez gain, azokatan lehiaketak izaten dira sarri, eta aspaldiontan parte hartzeko arauak **zorrozten** ari dira. Bi dira zorrozte horren helburu nagusiak: kalitatea hobetzea lehendabizikoa, eta bestea, eta ez da txantxa, amarruak, tranpak alegia, galaraztea. Ez da hain aspaldikoa Ordizian gertatu zen **istilua**. Iraileko feria nagusian gazta-lehiaketan **garaile** suertatu zen artzaina **iruzurgilezat** jo zuen gazta saltzaile batek, gazta berari erositako zela eta ez artzainak berak egina. Harrez geroztik, arduradunek hobeto arautu zuten lehiaketa, aldezturik ziurtatu egin behar zen ardi latxaren esnearekin egindako gazta zela lehiaketara aurkeztutakoa. Ustezko tranposoak ez zuen ezer ziurtatzerik izan, hil egin baitzen hurrengo urteko lehiaketa baino lehen. Baina gaztak behintzat hobeak izango ziren aurrerantzean: hori zen lehiaketako arduradunen asmoa.

Tolosan ere antzeko zerbaite gertatu da babarrun-lehiaketan.

Azken lau urteotan antolatzaileek eurek banatzen dizkiete babarrunak parte-hartzaileei. Horrela badakigu **egiatan** babarrunak Tolosakoak direla. Azken irabazleak esan zuenez, errezeta-lehiaketa irabazteko, jeneroa bera da garrantzizkoena, errezetari «osagarri» gehiegi ez **erastea**. «Gure Kaiola Elkartea» sortu da Tolosan, eta Eusko Jaurlaritzak ematen duen Kalitatezko Labelaren atzetik dabilta orain. Honekin guztiarekin zera lortu nahi da, Tolosako babarrunak zaku berezi batzuetan saltzea. Zaku horiek **ikuste hutsarekin** jakingo dugu barruan benetako Tolosako babarrunak daudela.

### Kofradiak

Dena dela, lehia handia baita, eta handia izango baita aurrerantzean ere, gure baserriko jeneroak merkatu guztietan egon behar du Europako muga guztiak **ezabatzen** direnean.

Lehia horretan zeresan handia dute kofradiak. Hauek ere ugaltzen ari dira: jeneroa bezeroarenganatzeko bidean, ez dute beharbada **eragin** zuzenik kofradiak, baina kofradien beraien inguruan sortzen duten giroa ona da, eta ezin ahaztu jeneroaren kalitatearen alde hitz egiten dutela. Bestalde, antolatzen dituzten ekintzak egunkarietako albiste izaten dira, eta publizitate honek **egundoko** mesedea egiten dio baserriko jeneroari. Azken finean, apurka-apurka onartu egiten dugu hemengo jeneroa kofradiei esker, ezagutu berezko balioa. Eta, adibide bezala, hortxe ditugu Idiazabalgo Gaztaren Kofradiako datuak: ia eskaera guztiari egin diote aurre, iaz milioi bat kilo ekoiztuz, eta ia %70a Euskal Herrirako bertarako zen. Beste kofradia batzuk «gatzexeagoak» dira, Beasaingo odolkiarena, esate batera, edo makailuarena, Eibarren. Baserrietan ez dago makailurik, baina baserriko jeneroa suspertu nahi duten kofradien asmo beretsuak ditu Eibarkoak ere.

J. M. Munduate

**EGINBEHAR.**- Egitekoa, eginkizuna, lana.

**ERATORRI.**- Derivado.

**ARTILE.**- Ardi-ile. Lana de oveja.

**HARI.**- Hilo.

**KETU.**- Ahumado.

**ERDIETSI.**- Lortu, iritsi. Conseguir.

**ONESPEN.**- One(t)s(i)+pen.

Onarpena. Aceptación. Era berean: luzapen, adierazpen, laburpen...

**ZATAR.**- Itsusia. Aurkakoa: ederra.

**IRITZI.**- Creer, opinar.

**ZAINZURI.**- Frantsesporrua.

Espárrago.

**ZORROZTU.**- Hacer riguroso o estricto.

**ISTILU.**- Sesioa, arazoa. Problema, follón.

**GARAILE.**- Garai(tu)+le. Irabazlea. -LE atzizkiak egilea adierazten du. Adibidez: erosle, ikusle, edale...

**IRUZURGILE.**- Iruzur+gile, Tranpa

edo amarrua egiten duena.

**EGIATAN.**- Benetan, zinetan.

Ciertamente.

**ERANTSI.**- Gehitu. Añadir.

**IKUSTE HUTS.**- Ikustea bakarra.

Mero ver.

**EZABATU.**- Ezereztu. Anular, borrar.

**ERAGIN.**- Influencia.

**EGUNDOKO.**- Sekulakoa, berebizikoa. Enorme.



## BARBARA TORRES: «Oso errotuta daukagu gurasoak direla haurren jabe»

**3** Gasteizen orain dela gutxi ireki dute bulegoa, Donostiakoa aspaldixeagokoa da, eta Bilbon ez du bulegorik oraindik. Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiek eta Gasteizko udaletxeak diruz laguntzen diote. A.V.A.I.M. elkarteari buruz ari gara, *Asociación Vasca para la Ayuda a la Infancia Maltratada* delakoaz. Euskarazko izena, *Tratu Txarrak Jasotako Haurren Laguntzarako Euskal Elkartea*, (T.T.J.H.L.E.E.). Aldizkari bat ere argitaratzen dute: *Haurdanik*. 1993ko urrian atera zen zero alea, eta 1 zenbakia, hiruhilabetekaria, 1994ko urtarrilean.

Haurren egoerari buruz hitz egiteko Gipuzkoako bokaletako batekin egon gara, Barbara Torresekin. Hasi baino lehen ohartxo bat, nahiz eta umeak aitatzen diren, 18 urtetik beherako edozein **hartzen dute aintzat**. 18 urtetik gorakoak baitira legez **heldu**.

**HABE.-** Zer da A.V.A.I.M.? Noiz sortu zen?

**BARBARA TORRES.-** Elkarre bat da, dirua egiteko ez dena, 115 **bazkide** dituen, eta EKako umei laguntzea, edo babesten laguntzea du **helbururik** garrantzikoena. Sortu, berriz, orain dela bost urte sortu ginen.

**H.-** Nola sortu zen, zergatik?

**B.T.-** Hasieran umeekin lan egiten genuenok hasi ginen: psikologoak, pediatriak, irakasleak, medikuak ... Bagenuen ardura bat, eta kezka bat umeen egoeraz eta tratu txarrez eta, ikusirik **gurean** ez zegoela horren inguruko elkarterik, sortzea deliberatu genuen. Ordurako bazegoen horrelako elkarre bat Katalunyan.



Espainiako elkarre batean gaude sarturik.

**H.-** Ez zarete tratu txarrez bakarrik arduratzen.

**B.T.-** Gure helburuetako bat EKako umeak, tratu txarren aldetik nola dauden ezagutzea da. Tratu txarrak esaten dugunean ez dugu bakarrik adierazi nahi tratu txar fisiko, psikiko, eta sexuala. Umeek eskubide batzuk dituzte, ume izate hutsagatik. Eskubide horiek **zabal** ez daitezen ere arduratzen gara.

Egoera hori ezagutzen laguntzen duten **ekimenak** ere bultzatzen ditugu, unibertsitatean batez ere, gure elkarteak kide batzuek unibertsitatean lan egiten baitute. Eta hurrekin lan

**ERROTU.-** Sustraitu. Enraizar.  
**AINZAT HARTU.-** Kontuan hartu. Considerar.  
**HELDU.-** Adulto/a.  
**BAZKIDE.-** Partaidea, sozioa, kidea.  
**HELBURU.-** Xedea, jomuga. Objetivo.  
**GUREAN.-** Gure artean. Entre nosotros.

**ZAPALDU.-** Zanutu. Pisotear.  
**EKIMEN.-** Iniciativa.



egiten duten profesionalen heziketaz ere arduratzen gara. Gure artean izan ditugu Miamiako Unibertsitateko Patrice Chritemberg, umea familiatik **banatzeari** buruz hitz egin zuen, edo EEBBtako Anthony Urkizak sexu-erasoari buruz jardun zuen... Une honetan hitzaldiak ematen ari gara eskolatan, udaletxetan, kultur etxetan... Profesionalak **hezitzea** bezain garrantzizkoa baita, beharbada gehiago, **jende xehea** hezitzea.

**Salaketak** ere egiten ditugu. Adibidez, gai honen ardura duen instituzioren bat behar bezala ez dela ari ikusten dugunean, edo komunikabideetan **hautzaroari** errespetu-falta **nabariitzen** dugunean...

## Umea eta familia

H.- Eta zein da egoera?

B.T.- Guk daturik ez dugu. Guri iristen zaizkigun eskaerak gai honen ardura duenari **igortzen** dizkiogu, Aldundiari. Telefono-zenbakia eta helbidea ematen dizkiogu salaketa egiten duenari. Foru Aldundiak erabakiko du tratu txarrik badagoen ala ez, eta, badago, zer egin behar den konponbidea iristeko. Dena den, nik ez dut uste, esate batera, 10 urtetik hona tratu txarrak gora egin duenik, baina errazago atzematen dela, hori bai... Bestalde, garai batean, **jipoi** izugarrien berri izaten zen, edo horien antzekoen berri. Horrelakoetan gurasoek, edo gurasoetako batek, tutoretza galtzen zuen, eta, adibidez, **umeordetzari** ekiten zitzaion. Orain, berriz, hain larriak ez diren tratu txarrak ere **atzematen** dira, eta konponbidea bera ere, ez da izaten hain mingarria familiarentzat. Familiarekin lan asko egiten da, familiaren barruan saiatu konpondu beharrekoa konpontzen. Batzuetan, bere txarrean tutoretza kentzea izaten da onena, baina aldi baterako kentzea, ez betiko: «Une honetan umeak ez dira zuekin egongo. Etxebizitza batetara eraman behar ditugu, edo beste guraso

batzuegana eta bitartean gu zuei laguntzen arituko gara».

H.- Nork salatzen du tratu txarra?


B.T.- Normalean profesionalak izaten dira: irakasle bati igoyal sarri etortzen zaio ume bat zikin jantzita, edo pediatra batek izan ditzake **susmoak**, halako umea ez dutela gurasoek behar bezala **elikutzen**, edo **ubeldurak**... Auzoak gutxitan salatzen du, ez bada oso egoera larria.. Gure gizartean oso errotuta dago oraindik ere gurasoak direla haurren jabe, eta auzoak tratu txarrak salatzea, muturra besteen **lapikoan** sartzea dela.

H.- Irakasleak aitatu dituzu. Asko kexu dira, etxean dena ametitzen zaiela.

B.T.- Umeek diziplina behar dute. Hori gabe umea haztea, hori ere, nolabait esatearren, tratu txarra da. Gurasoen **ajolagabekeria**, utzikeria da hori, umea ez heztea. Umeek arauak behar dituzte, zer egin dezaketen eta zer ez.

## Guraso jipoituek beren seme-alabak jipoitzeko ohitura dute

Egin behar ez dena da gauza berarengatik egun batean **errieta egin**, eta hurrengo egunean beste modu batera jokatu. Horrela umea nahastea besterik ez da lortzen. Eta arauak ere, umearen edadearen neurrikoak izan daitezela.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

**BANATU.-** Apartatu, bereizi. Separar.

**HEZI.-** Educar.

**JENDE XEHE.-** Jende arrunta. Gente sencilla o común.

**SALAKETA.-** Sala(tu)+keta.

Denuncia. -KETA atzizkiak ekintza eta horren ondorioa adierazten ditu. Esate baterako: itaunketa, antolaketa, ikerketa...

**HAURTZARO.-** Haurtza+aro. Infancia. Era berean: zahartzaro, helduaro, gaztaro...

**NABARITU.-** Sumatu. Percibir.

**IGORRI.-** Bidali. Enviar.

**JIPOI.-** Paliza.

**UMEORDEZTA.-** Adopción.

**ATZEMAN.-** Notar, ver.

**SUSMO.-** Errezeloa. Sospecha.

**ELIKATU.-** Bazkatu. Alimentar.

**UBELDURA.-** Odolbildua. Moratón.

**LAPIKO.-** Eltzeta. Puchero.

**AJOLAGABEKERIA.-** Utzikeria, zabarkeria. Dejadedez.

**ERRIETA EGIN.-** Reprender.



**H.-** Beraz, ona da **zaplasterko** bat garaiz ematea?

**B.T.-** Nik nahiago dut umea ez jo, baina zaplasterko bat ematea ez zait tratu txarra iruditzen... Baina batzuetan zergatik jotzen da umea? Badakigulako ez zaigula zaplasterkoa bueltan etorriko. Gurasoak beren botereaz baliatzen dira umea jotzean.

**H.-** Tratu txarra non gertatzen da?

**B.T.-** Famili barruan **endemas**. Lehen esan dizut familiari dagozkion terapiak eramaten direla aurrera sarri. Horregatik, erabakirik zailenetako bat horixe izaten da; ea tratu txar horregatik familia banatzeko erabakia hartzea merezi duen. Ze tratu txarra tratu txar, umea berez gurasoei lotuta dago, eta arazoa **konpontze aldera**, familia banatzen bada, gerta liteke kaltea larriagoa izatea tratu txarrak berak dakarrena baino. Beraz, eta nahiz eta batzuetan luze jo terapia horiek, ezinbestean bakarrik ateratzen dute umea famili girotik.

## Haurrak bere adinaren araberako arauak behar ditu

**H.-** Nork du tratu txarrak jasateko arriskua?

**B.T.-** Badaude gizarte batzuk beste batzuk baino errazago eramaten dutenak tratu txarren kontu hau. Gureak adibidez nahiko erraz eramaten du. Bestalde, esaten da, herri xeheak nozitzenago duela egoera hau, baina kontuz. Herri xehean errazago atzematen dira tratu txarrak; horrek ez du esan nahi herri xehetik at tratu txarrik ez dagoenik, baina nekeza da atzematen. Dena den, egia da herri xehean pilatu egiten direla arrisku **eragileak**: estresa, langabezia, alkoholismoa, etxebizitza desagokiak...

Familiak ere badu eragina: gurasoak elkarrekin ondo ez konpontzea, edo umeekin. Edo umeak berak sor dezake estresa gurasoengan, eta, aita **halamoduzkoa** bada, gerta liteke umea **astintzea**. Edo deprimituta dagoen ama batek gogorik ez izatea bere seme-alabak zaintzeko.

Normalean, esaten digutenean ume batek tratu txarrak jasan dituela amorrua sentitzen dugu erasotzailearekiko, eta enpatia umearekiko. Baina saiatu behar dugu ulertzen

zergatik ama/aita/anaia horrek eraso egin duen. Zaila da ulertzea. Nik ume bat izan dudan arte, ez dut ondo ulertu erasotzaileen jarrera. Ume batek goizko hiruretan negar batean esnatzen zaituenean, eta, isiltze aldera, direnak eta ez direnak egin eta, tinko negarrontzi segitzen badu, aitortzen dut, lotsaz beteta esaten dut, nere umea astintzeko eta txikitzeko gogo bizia izan dudala. Eta **errudun** sentitzen nintzen horregatik. Baina beste gurasoein hitz egin eta, «barkatu, baina hori guztiok sentitu izan dugu» esan didate. Nik eskerrak



«Tratu txarra familiaren barruan ematen da endemas».

**ZAPLASTERKO.-** Belarrondokoa. Bofetada.

**ENDEMAS.-** Gehienbat, batez ere. Sobre todo.

**KONPONTZE ALDERA.-** A cambio de arreglar.

**JASAN.-** Pairatu, nozitu. Sufrir.

**ERAGILE.-** Kausa. Factor.

**HALAMODUZKO.-** Erdipurdikoa, badaezpadakoa, gixona.

**ASTINDU.-** Sacudir.

**ERRUDUN.-** Erru+dun. Culpable. Era berean: bizardun, dirudun, hartzekodun...



senarraren laguntza dudan. Baina denek ez dute laguntza hori, askotan familia **gurasobakarrek**oak dira, umearen aiton-amonekin ondo konpontzen ez direnak zenbaitetan, eta ezin diote inori deitu goizeko hiruretan laguntzera etortzeko, ezin dute umea inorekin utzi gurasoak eurak piskat lasaitzeko. Eta horri gehitzen badiozu lanik eza, etxe txarra... Umea jo? Ez naiz batere harritzen! Horregatik laguntzen zaio, adibidez, aitari alkohola utz dezan, lagun berriak egin ditzan, gurasoekin konpon daitezen...

**H.-** Pentsatzekoa da tratu txarra nozitzen duena neska izatea gehienetan.

### **Gasteizen eta Donostian dituen egoitzak A.V.A.I.M. elkarteak**

**B.T.-** Ez. Sexu-erasoan bai, noski: lautik hirutan hala gertatzen da. Baina bestela ez.

**H.-** Eta erasotzailea?

**B.T.-** Sexu-erasoan gizonezkoa da gehienetan, baina ama ere bai batzuetan. Hortik kanpo, ez, ezin esan liteke ez gizonezkoa ez emakumezkoa dela erasotzailerik usuena. Lehen ez dizut esan, baina tratu txarrak jaso dituen ama/aita batek bere umeak erasotzeko joera izaten du, hori %30ean gertatzen da.

**H.-** Nolakoa da erasotzailea?

**B.T.-** Sarri esaten da erasotzailea erotuta dagoela. Egia da arazo psikologikoak izaten dituela, baina oso gutxitan dago psikiatriarako moduan.

### **Tratu txarrak ze kalte?**

**H.-** Zein kalte egiten dituzte tratu txarrek?

**B.T.-** Kalte fisikoa, sendatu



**«Sexu-erasoz kanpo, ezin esan liteke ez gizona, ez emakumea dela erasotzailerik usuena».**

egiten da. Kalte fisikoa baino larriagoa da askozaz ere, kalte psikikoa: tratu txarra jasandako umeek ez dute beren burua maite, ume «normalak» baino askoz ere erasokorragoak dira, edo alderantziz, askoz ere **kokilagoak**, edo oso **beldurtiak**. Hala ere, badira umeak kalte psikikorik ere jasaten ez dutenak. Baina gutxi batzuk dira horrelakoak. Dena den, ez hain gutxi, tratu txarrak jasandako %15ak edo ez du kalte psikologikorik izaten terapiaren ostean...Horrek ez du esan nahi

tratu txar hori ahaztuko duenik. Kontua ez da «ez zait ezer gertatu eta kitto».

**H.-** Gai honen inguruan beharrean ari zaretenoi iristen zaizkizue tratu txarren salaketak. Baina, hala ere, ez beti, beste askotan ez, hobe esanda.

**B.T.-** Pentsa piskat zenbat familia ezagutzen dituzun. Seguru zuzenean edo zeharbidez ezagutzen duzula, denok ezagutzen dugu norbait, familiaren bat tratu txarren arazoa nozitzen duena. Hortik atera kontuak!

**GURASOBAKARREKO.-** Monoparental.

**KOKIL.-** Uzkurra. Acoquinado/a.  
**BELDURTI.-** Beldur+ti. Izutia, ikaratia. -Ti atzizkiak joera adierazten du. Adibidez: lotsati, negarti, lotsati...



## ARGIZAIOLA, HILDAKOEN ARGIA

**3** San Telmo museoan argizaiolari buruzko erakusketa bat egin da amaitu berri den urtearen **hondarrean**, eta aurtengo urtearen hasieran. Erakusketa Luis Pedro Peña Santiagoren omenez antolatu da. Hantxe zeuden berak idatzitako liburuak ere, baina guk argizaiolari egingo diogu tarte erreportaia honetan. Gipuzkoako Goierri besterik ez dagoela, konturatu zen eliza askotan zeudela argizaiolak eta horrela hasi zen hildakoekin zerikusia duten **ohol** hauek ikertzen. Bi liburu behintzat baditu gai horri buruz Luis Peña Santiagok.

**Era** askotako argizaiolak daude. Batzuk hankarik gabeak dira, beste batzuk hankadunak. Batzuek **harri-txintxarrak** dituzte barruan, edo harri bakarra, hotsagatik ezagutzeko. Baina barren-hutsak ere badira, eta baita trinko-trinkoak ere. Argizaiol batzuek marrazkiak dituzte; ez guztiak, ordea. Argizaiol borobilak ere badira, eta abar.

### Hitza bera


Etimologiari erreparatuz, bi zatitan banatua dago hitza: **argizari** eta **ohol**. Hitzez hitzezko esanahia argizaiaren ohol izango da. **Zurezko** ohol batera biltzen da argizari-zoko kandela mehea **biribiltzeko**. Gero hildakoen oroimenez egongo da pizturik.

### Amezketan oraindik pizten dira argizaiolak

Bedaioko istorio polit bat azaltzen da museoan, Juan Garmendia Larrañaga tolosarrak jasoa. Bedaioko Larrañeta baserriko gizona ilunabarrean etxera joaten zen, eta bidean aurrez aurre hildako baten arima agertzen zitzaion. Baserritarrak behin eta berriz galdetzen zion zer nahi zuen, baina ez zuen

erantzunik jasotzen. Gizonak, beraz, apaizarengana jo zuen laguntza eske, eta apaizak esan zion anima erratua berriz azaltzen bazitzaion **hika** hitz egiteko, ez zuka. Iluntzean, Larrañetako gizona etxerantz zihoan, eta hara arima erratua berriro agertu: «Zer

falta duk, zeren beharrean hago» galdetu zion baserritarrak. Arima erratua baserritarraren **sendikoa** zen nonbait: «Nik ofrezitu nian libra bat argizari elizako nire sepulturan erretzeko, eta hura erre zain nagok zerura joateko». Argizaria berehala behar den



*Era askotako argizaiolak daude.*

**HONDAR.**- Bukaera, amaiera.

**OHOL.**- Tabla.

**ERA.**- Mota. Clase.

**HARRI-TXINTXAR.**- Harri-koskorra, legarra, harri txikia, Piedrecilla.

**ARGIZARI.**- Ezkoa, Cera.

**ZUR.**- Egurra, Madera.

**BIRIBILDU.**- Enrollar.

**HIKA.**- Adiskideen artean erabili ohi den hizkera berezia.

**SENDI.**- Familia.



lekuan jarri eta piztu zuten, eta hala arima erratua betirako ezkutatu zen.

### Hilobiaren gainean

Etxe tradizionalak eta historiaurreko **haitzuloak** funtzio berbera izan dituztela esango bagenu, ez genuke gezurrik esango. Etxea aldi berean, logela, tailerra, tenplua eta hilobia izan da. Argizaiolaren jatorria ezin uler liteke etxea hilobia zela jakin gabe. Argizaiol **gehientsuenak** hilobien gainean daude elizan. **Ehortzitakoaren** sendiko batek, ia beti emakumea, pizten du argizaiola meza nagusia hasi aurretik, edo Hildakoen Egunean, edo heriotzaren urteurrenetan. Eta itzali ere emakume horrek egingo du. Argizaiolak zaintzen, berriz, **serorak** aritzen ziren toki askotan.

Juan Garmendia Larrañagaren «Costumbres y Ritos Funerarios en el País Vasco» liburuan agertzen denez, Carlos III. erregeak agindu zuen 1787an eliza barruan ehorzketarik ez egiteko, eta **hilerriak** sortzeko kanpoan. Zenbait lekutan ez zuten begi onez ikusi lege hori. Adibidez, Anoetan 1820an erabakiko dute hilerria **auzolanean** egitea, legea atera eta 33 urte geroago.

### Nafarroan eta Gipuzkoan

Euskal Herri osoan **hedaturik** bazeuden ere, argiarekiko ohitura hau batez ere, Gipuzkoan eta Ipar Nafarroan **errotu** zen sakon, Bizkaia, Araba eta Iparraldean lehenago desagertu zen. Horregatik San Telmoko argizaiolik gehienak Gipuzkoan jasoak dira: Ataunen, Abaltzisketan, Amezketan —hemen oraindik egiten dira argizaiolak eta bizirik dirau honen inguruko ohiturak—, Itsasondon, Legorretan, Alegian, Tolosan, Orion, Arrasaten, Elgetan,...

Usterik zabalduenaren arabera, XVI-XVII. mendeen hasieran hasi ziren egiten. Inoiz ez da aurkitu gotiko **izaerako** argizaiolik, bai, ordea, barroko izaerakoak. Horren seinale dira



ARGAZKIA: X. ELGEZABAL

**Argiarekiko ohitura hau Gipuzkoan eta Ipar Nafarroan hedatu zen batez ere.**

argizaiolek sarri goitik beheraino duten dekorazio sarria. Horrela, **ezarian-ezarian**, argizaiola itxuraz aldatzen joango da, bere itxura antropomorfoa galdu arte. Teoria antropomorfoaren arabera, baliteke argizaiolak, bere **mezu** sinbolikoaren bitartez, hildakoaren arimaren bizi-iraupena adierazi nahi izatea. Horregatik, ez da harritzekoa, hilarriak bezalaxe, antzina argizaiolak ere antropomorfoak izatea. Dena den, argizaiolak, hilarriak **ez bezala**, etxeko su sinbolikoaren eramale izatearen berezitasuna eskaintzen du. Peña-Santiagok 1961-1964 urteetan argizaiolak ikertzen ibili ondoren «La argizaiola vasca» liburua argitaratu zuen. 63. orrialdean aitatzen denez, Albizturren, hiletaren ondoren, **hilkutxaren** gainean argizaiola jartzen omen zuten, hildakoari argi egiteko.

Zenbait tokitan, Astigarreta aitatzen du Peña Santiagok, **oihal** beltz bat jartzen zuten argizaiolaren azpian, familiartekoren bat hil zela

adierazteko. Heriotzaren urteurrena betetakoan kentzen zuten oihal hori. Leku askotan argizaiolen ondoan **saskitxoak** egoten ziren, eta daude hainbat lekutan, erresponsoarako diruarekin. Lizartzan, esate baterako, argitokiak argizaiolaren funtzio bera betetzen omen zuen. **Argi-mutila** ere meza nagusia hasi aurretik pizten zuten.

**Salbuespenak salbuespen**, gaur egun argizaiola egiten da, baina **esanahi** espiritualetik gutxi du. Askotan **apaingarri** gisa erabiltzen da, eta artisau-dendetan aise aurki liteke. Zenbait etxetan egutegien **euskarritarako** erabiltzen dute argizaiola. Artista askok ere argizaiola izan du forma estetiko berriak sortzeko oinarri. Dekorazioaz **ariki**, ezin da ahantzi arte herrikoia. Arte herrikoian, hots, kutxa, hilarri, **uztarri**, **sehaska**, goilare eta abarretan azaltzen diren irudiak azalduko dira argizaiolatan ere. Hala nola: sei hostoko lorea, arrosoia, eta orohar, landare eta sinbolo astrologikoak.

**HILOBI.** - Sepultura. Tumba.  
**HAITZULO.** - Harpea, kobazuloa.  
**GEHIENTSUENAK.** - Ia gehienak.  
**EHORTZI.** - Lur eman, hobiratu. Enterrar.  
**SERORA.** - Eliza txukun edukitzeaz arduratzen den emakumea.  
**HILERRI.** - Kanposantua. Cementerio.  
**AUZOLAN.** - Elkarrekin eta dohainik egin ohi den auzokideen lana.

**HEDATU.** - Zabaldu, barreiatu. Difundir, extender.  
**ERROTU.** - Sustraitu. zainak bota. Enraizar.  
**IZAERA.** - Estilo.  
**EZARIAN-EZARIAN.** - Poliki-poliki, ia konturatu gabe.  
**MEZU.** - Mensaje.  
**EZ BEZALA.** - A diferencia de.  
**HILKUTXA.** - Zerraldoa. Féretro.  
**OIHAL.** - Paño, tela.


**SASKITXO.** - Saski txikia. Cestita.  
**ARGI-MUTIL.** - Candelero.  
**SALBUESPENAK SALBUESPEN.** - Salbuespenak aparte. Excepciones aparte.  
**ESANAHI.** - Adiera, zentzua. Sentido.  
**APAINGARRI.** - Edergarria. Adorno.  
**EUSKARRI.** - Soporte.  
**ARIKI.** - Ari garelarik. Tratando de.  
**UZTARRI.** - Yugo.  
**SEHASKA.** - Kuma. Cuna.



## LOROAK ETA GU BATERATSU HIL

**2** Tximinoak eta gizakiak oso antzekoak gara gauza askotan. Baina ez guztietan, zorionez. Gu 80-100 urtez bizi izaten gara; haiek, ordea, horren **herenera** ere ez dira iristen. Ba al dakizue alor horretan zeinek daukan gure antza? Loroak. 80-116 urtez bizi izaten da **hegazti berritsu** hori. Hona hemen beste zenbait animaliairen **biziraupena**:

- **Dortoka**: 300 urte
- **Belatza**: 160 urte
- Elefantea: 80 urte
- Zaldia: 40 urte
- **Apoa**: 40 urte
- Lehoia: 25-30 urte
- Balea: 25 urte
- Txinpantzea: 25 urte
- Txakurra: 17-18 urte
- Katua: 14-20 urte
- **Marraskiloa**: 6-8 urte
- Sagua: 2-3 urte
- **Armiarma**: 1-2 urte
- **Zorria**: 27-46 egun



## ASTELEHENETAN LARRI-LARRI ANDRAIZERA

**2** Iruñean dago Andraize famili plangintzarako zerbitzua. Bulego horretan, besteak beste, **haurdun** ez gelditzeko metodoak erakusten dira. **Ikasita ere**, batzuetan hutsegiteak izaten dira, kondoia hautsi edo dena delakoa. Goiz asko joaten da jendea Andraizera laguntza eske. Izan ere, lehen 3 egunetan badago oraindik atzera egiterik. Neoginal izeneko antisorgailua hartzeko gomendatzen dute han. **Ernaltzeko** arriskua izugarri **murizien** da horrela. Batzuk, dena den, etxeko medikuarengana edo botikara joaten dira zuzenean.

## IPUINAREN BARRUAN SARTU

**2** Ipuin eder-ederrak saltzen dira liburudendetan: marrazki politzez **hornitutakoak**, mugikorrak... Opariak egiteko aukera zabala dago. Iruñeko Kakumen argitaletxeak beste bide batetik jo du: istorioa bera egiten du erakargarri. Nola? Irakurlea ipuinaren barruan sartuta. Hamalau istorio dauzkate **aukeran**. Ordenagailuan irakurlearen eta haren lagunaren izenak sartu, eta, handik hamar minutura, argitaratuta azalduko dira liburuan. Ipuina ez da merkea —2.800 pezeta balio du—, baina baietz gustatu oparia!



## ABEREAK OSPITALEETAN



**2** Estatu Batuetako eta Kanadako ospitale batzuetan abereak bisitan joaten dira. Txakurra ondoan dagoenean, lasai daude

gaisoak. **Bihotz-taupadak** gutxitzen zaizkie, baita tentsioa jaitsi ere. Zahar batzuek, bestalde, ez dute lagun hoberik. Zein joango zaie bisitan?

**TXIMINO.**- Tximua. Mono.  
**GIZAKI.**- Ser humano.  
**HEREN.**- Hirutik bat. Un tercio.  
**HEGAZTI.**- Ave.  
**BERRITSU.**- Hitzontzia. Charlatán.  
**BIZIRAUPEN.**- Duración de vida.  
**DORTOKA.**- Tortuga.  
**BELATZ.**- Gabiroia. Gavilán.

**APO.**- Zapoa.  
**MARRASKILO.**- Caracol.  
**ARMIARMA.**- Araña.  
**ZORRI.**- Piojo.  
**HAURDUN.**- Embarazada.  
**IKASITA ERE.**- Nahiz eta ikasi. A pesar de aprender.  
**ERNALDU.**- Preñar.

**MURRIZTU.**- Urritu, gutxitu. Disminuir.  
**HORNITU.**- Dotar.  
**AUKERAN.**- A elegir.  
**BIHOTZ-TAUPADA.**- Latido del corazón.



## GAUR ASPERTUTA, BIHAR GAISORIK

**2** Exekutiboen estresa oso ezaguna da. Erabaki asko eta **axola** handikoak hartu behar izaten dituzte, eta baita lana **gogotik** egin ere. Estres horrek kalte handia egiten dio osasunari. Bada beste estres-mota bat, ordea: langile aspertuena. **Harrigarria bada ere**, lan aspergarriak adrenalina-maila igoarazi egiten du. Exekutiboen estresak bezalaxe, bihotzekoak, buruko gaitzak, hezur eta **giharretako** arazoak, urdail eta **hestetako** gaitzak eta abar sortzen ditu. Ibon Sarasolaren Hauta-Lanerako Euskal Hitzegian zera azaltzen da: «Lana baino **latzagoa, asperkizuna**». Badirudi, beraz, arrazoi duela esaera horrek.

Jende asko aspertzen da lanean, batez ere beti egiteko bera daukanean. Britainia Handiko inkesta batean honako datuok azaldu ziren duela gutxi: langileen %56ri erabat **gogaikarria** iruditzen zaio lanpostua; %87ak, berriz, inoiz aspergarria iruditu zaiola aitortu du. Gaitz zabaldua dela aitortu behar, hortaz.

### Aspertuta, adrenalina-maila gora

Lantokian aspertzen direnean, adrenalina-maila **ohizkoa halako bikoa** izaten dute.

Estresatuta daudela aitortu behar da. Eta stres horrek gaitzak ekartzen ditu. Bi langile-talde **alderatuta** —aspertzen direnak eta lanean gustora ari direnak—, lehenengo taldea **gaisoberagoa** dela frogatu da. Aspertuek besteek halako hiru-bost **bihotzeko** izaten dute. Buruko gaitzetan

ere eragin izugarria omen du: besteek halako lau-zazpi buruko arazo izaten dute. Urdail eta hesteetako gaitzetan ez da hain nabarmena:

gogaituek pozik ari direnek halako bitan joan behar izaten dute medikuarengana. Gihar eta hezurretako gaitzetarako ere batere ona ez dela frogatu da... **Gauzak**

**horrela**, langile gogaituak askotan joaten dira sendagilearengana, eta sendatzen lan-egun mordoska galdu ohi dituzte. Gustora eta pozik ari direnak halako hiru-bost lan-egun gaitzen dituzte. Ez da **txantxetakoa**, beraz.

Langilea aspertzeak zenbait lanbidetan —kamioizale, autobus-gidari, hegazkin-piloto...— ondorio latzagorik ere izaten du. Aspertu, **moteldu**, lo hartu eta **istripua**. Kaltea gidari zein bidaiarientzat. Aspertzeak hil ere egiten egin duela esan behar ote dugu?



**AXOLA.** - Ardura. Responsabilidad.

**GOGOTIK.** - Erruz, asko.

**HARRIGARRIA BADA ERE.** - Nahiz eta harrigarria izan. Aunque es extraño.

**GIHARRE.** - Músculo.

**HESTE.** - Intestino.

**LATZ.** - Gogorra, lakarra. Aspero, duro.

**ASPERKIZUN.** - Asperia. Aburrimiento.

**GOGAIKARRI.** - Higuigarria. Fastidioso, desagradable.

**OHIZKOA HALAKO BI.** - Doble de lo normal. Era berean: halako hiru, halako lau...Triple, cuádruple...

**ALDERATU.** - Erkatu, konparatu.

**GAISOBERA.** - Gaisotzeko joera gehiegizkoa duena. Enfermizo

**BIHOTZKO.** - Infarto de corazón.

**GAUZAK HORRELA.** - Hori horrela izanik. Así, de esta manera, de modo que.

**TXANTXA.** - Broma.

**MOTELDU.** - Geldotu. Atontarse, perder vigor.

**ISTRIPU.** - Accidente.



HARPIDETZA-ORRIA

# HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

Helbide honetara bidali behar da:

**HABE aldizkaria**  
Vitoria - Gasteiz kalea, 3  
20009 DONOSTIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Herria:

HABE Aldizkaria jaso nahi dut etxean.

Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez (Urtean hamaika ale: 2.950 pezeta).

Hauxe da: Bankua edo Aurrezki-Kutxa

Sukurtsala:

Zenbakia:

**EGOITZA.** - Sede.

**ZEHAZ.** - Minucioso, detallado.

**ALFERRIK.** - Inútilmente.

**IHARDUNALDI.** - Biltzarra, bilera.

Encuentro, jornada de trabajo.

**HITZALDI.** - Conferencia, charla.

**ENTZULE.** - Oyente.

**EZINBESTEKO.** - Derrigorrezkoa, behar-beharrezkoa.

**EUSKARRI.** - Ostikoa. Sostén, soporte.

**UKO EGIN.** - Arbuiatu. Renunciar.

**JORRATU.** - Landu. Trabajar, elaborar.

**SOLTE.** - Suelto.

**KOKATU.** - Lekutu. Ubicar.

**GARAI HURA BEZAIN ILUNA.** - Tan negro como aquella época.

**EZ BEZALA.** - A diferencia de.


# BAI, ESAN

## HABE LIBURUTEGIAN 500 ALDIZKARITIK GORA AUKERAN

**2** Katalogo berria eman du argitara HABE Liburutegiak, duela lau urtekoa baino 150 sarrera gehiagokoa. Liburuan azaltzen diren 552 aldizkari horiek HABE **egoitza** berriko liburutegian daukazu.

Katalogo **zehatza** da. Aldizkariaren izena eta azpizena, non eta zeinek argitaratua den, zenbaterokoa, liburutegian dauden zenbakiak eta ISSN-aren (International Standar Serials Number) zenbakia dakartza. Beraz, **alferrik** etortzeko arriskurik ez duzu. Badakizu aurretik zein zenbaki daukazu eta zein ez.

Jende askok agian ez du oraindik liburutegi berria ezagutuko. Hauxe da oraingo helbidea: Vitoria-Gasteiz kalea, 3-3.a -DONOSTIA. Eta ordutegia beste hauxe: Astelehenetik ostegunera: 9-13'30 eta 15-17. Ostiraletan: 8-15.



## DONOSTIAKO IHARDUNALDIAK GOGORA EKARTZEN

**2** Hitzaldietan gauza asko esaten da. Baina esandakotik zenbat hartzen du gogoan **entzuleak**? Eta handik urte batera gaia zein zen ere ba ote daki? Testu idatzia **ezinbesteko euskarria** izaten da ihardunaldi eta biltzarretan, eta HABEk ere ez dio ohitura horri **uko egin**. HABESEA Legearen 10. urteurrenean Donostian izandako ihardunaldiak paperean eskaini dizkigu oraingoan.

Ehun orritan jaso dira, hitzez eta irudiz, 1993ko urriaren 28 eta 29an esan eta aurkeztutakoak. Hauexek dira han **jorratutako** gaiak:

-HABESEA legeak 10 urte (Antton Iñurritegi/Josu Barrena).

-HABEren euskal abezea (Pello Esnal).

-HABE etorkizunari begira (Martin Etxeberria/Pello Esnal/Antton Iñurritegi).

-HABE eta hizkuntz politika (Joseba Arregi).





## KOLOREZKO ISTORIO BELTZA

**2** Hamazortzigarren ale berezia ere kalean da, «Begien Indarra» izenekoa. Baina horrek ez du esan nahi HABEKO MIK berriz ere argitaratzen hasiko denik. Ale **soltea** da hau.

«Begien Indarra» gerraostean **kokatutako** istorio baten kronika beltza da, **garai hura bezain iluna**. Hala ere, komiki koloreztatua da. Zinean **ez bezala**, koloreak istorioaren **garraztasuna areagotu** egin du.

Istoria Bizkaiko itsas herri batean lekutua dago. Sinesgarriago egiteko edo, bizkaierazko **kutsua** eman diete bertako elkarriketei. Bizkaierazko hamaika hitz eta esamolde ikasteko aukera **aparta**, beraz.

**Talde-lanean** sortutako komikia da hau. Edorta Jimenezek gidioa idatzi du; Alberto Uribarrik, ondoren, marraztu eta koloreztatu; eta Txema eta Pedro Yarritik margotzen lagundu diote marrazkilariari.



## AURRIRITZIAK BAZTERTZEN

**2** Gai batean **jantzita ez gaudenean**, aurriritzien **arabera** jokutzen dugu. *Estatu Batuetan genetikoki hobetutako tomateak lortu direla? Ez dut ba nik horrelakorik ikusi nahi etxean!* Baina erabaki hori hartu baino lehen ez ote genuke gai hori ulertzen saiatu behar? UNESCOren ALBISTARIA honek, adibidez, bioteknologia arloa piska bat ezagutzen lagunduko digu. «Zer Dira Bioteknologiak?», «**Lorpenak**, Itxaropenak eta **Erronkak**», «Egungo Egoera», «**Onddo** Magikoa», «**Hartzidurak**», «Itsas Korrante **Emankorra**», «Iraultza Berdetik Iraultza Genetikora» eta «Mundu Biziaren Edertasuna» izeneko idazlanek osaten dute bioteknologiari eskainitako ale hau.

Irakurleak, dena den, besterik ere aurkituko du aldizkari honetan: Antoni Tapiés-i egindako elkarriketa bat, Martin Luther King-i buruzko idazlan bat, eta Unescoren Zuzendari Nagusiak Sarajevoetik bidalitako bakearen aldeko deia.



## IRAKURKETAZ IRAKURRI BEHARREKOA

**3** Gure artean ez da **arreta** handirik jartzen irakurketan. Denborapasa bezala hartzen duenik ere bada. Euskara ikasi eta landu dutenei galdetu behar, ordea, nola ikasi duten gehien. Claudette Cornaire frantses-irakasleak idatzitakoa irakurteak ez digu kalterik egingo.

Hizkuntz irakaskuntzarako bost metodologia nagusiek irakurketaz diotena laburbildu ondoren, irakurketaren oinarrietara jotzen du, begien pertzepzioa eta **oroimenaren** antolamendua informazioaren tratamenduan gaiak landuz. Irakurketa-ereduak aztertzen ditu ondoren, **ama-hizkuntzakoak** eta bigarren hizkuntzakoak **alderatuta**. Irakurle onaren abildade eta estrategiak, testu-ikerketak, irakurketaren proiektua eta faseak... dira besteak beste bigarren zatiko gaiak. Eta hirugarrena **arestiko bilakaera** eta joerei eskaini die. Liburuaren azken aldean galdesortak ere badakartza, ikasleekin erabiltzeko modukoak.



**GARRAZTASUN.**- Mingostasuna. Amargura.

**AREAGOTU.**- Handiagotu. Aumentar.

**KUTSU.**- Ikutua. Sabor, toque.

**ESAMOLDE.**- Esaera. Dicho, expresión.

**APARTA.**- Bikaina. Extraordinario.

**TALDE-LAN.**- Trabajo de equipo.

**AURRIRITZI.**- Prejuicio.

**JANTZITA EGON.**- Jakin, gaitua

izan. Estar capacitado o preparado.

**ARABERA.**- De acuerdo a, según.

**LORPEN.**- Logro.

**ERRONKA.**- Apustua.

**ONDDO.**- Hongo.

**HARTZIDURA.**- Irakina.

Fermentación.

**EMANKOR.**- Joria. Fétil, fructífero.

**IRAKURKETA.**- Irakur+keta. Acción de leer. Era berean: idazketa,

azterketa, garbiketa...

**ARRETA.**- Ardura, ajola. Atención, cuidado.

**OROIMEN.**- Oroi(tu)+men. Facultad de la memoria. Era berean: ikusmen, entzumen, mintzamen...

**AMA-HIZKUNTZA.**- Berezko hizkuntza. Lengua materna.

**ALDERATU.**- Erkatu, konparatu.

**ARETIKO.**- Reciente.

**BILAKAERA.**- Desarrollo.



## XEBE DIEZ: «Oso gutxitan egiten dugu kale»

**2** Alkizara jo genuen goiz hotz hartan. Etxea zaintzen zuten bi txakurrek egin ziguten *ongi etorria*. Berehala atera zen balkoira Xebe, **igotzeko** esanez. Kafe-kikararen inguruan egin genuen elkarrizketa, euskaraz jakina! ETB1ean **eguraldilari** euskalduna bazelako hasi zen erdarazko saioa aurkezten. Dena den, gaztelaniaz ondo moldatzen dela aitortu behar zaio.

**HABE.-** Jende asko *Teleberri* bukatu zain egoten da Xebek ze txorakeria esan edo egiten duen jakiteko. Uzten al dizute nahi duzun guztia esaten?

**XEBE DIEZ.-** Bai. Orain arte ez didate ezertarako **oztoporik** jarri. Baina nik neronek jartzen ditut mugak. Informazioa emateaz gain, ahal bada entretenitu egin nahi dut jendea.

**H.-** Jendeak kasu egiten al dio informazioari?

**X.D.-** Bai. Autografoak eta guzti eskatzen dizkirate kalean. Jende guztiak esaten dit: *Orain askoz hobeto. Horrela bai entzuten dudala eguraldiaren iragarpena*. Gainera, zure **errefrauen** zain egoten naiz, ea zer esaten duzun.

**H.-** Nondik ateratzen dituzu esaera zahar horiek? Alkiza bezalako herri euskaldunetan horrelako gutxi entzungo duzu.

**X.D.-** Nire amona bat oso errefrauzalea zen. Erdalduna zen

hura; bestea ez. **Gortu** egin zen gero berrogeita piku urterekin. Zerbait ikusi eta esaldiren bat esaten zuen. Nik askotan idatzi egiten nituen, gustatzen zaizkidalako. Hil egin zaigu orain lau urte edo. Telebistan, lehen egunetan **bururatu** zitzaidan horrelako batzuk botatzea, **ze** horietako batzuek zerikusia badute eguraldiarekin. Entziklopedian hasi nintzen begiratzen gero. Eta handik hilabetera edo, beste liburu hori, «4.000 refranes» erregalatu zidaten, eta beste batzuk erosi ere bai.

### Tenporak?... azkenekoetan dena aldrebes»

**H.-** Zuk gaueko saioa aurretik grabatzen duzu. Zergatik bat-batekoaren freskotasuna galdu **aktore izanik?**

**X.D.-** Hori grabatuta joaten da beti. Euskal Telebista da zuzenean saio bat, eguerdikoa, ematen duen bakarra. Beste telebistetan ez da horrela egiten. Denbora gutxikoa da, hiru-lau-bost minutu. **Ahal den ongien** eman behar da. Oso gaizki **geratuko litzateke**, askotan gertatzen zaidan bezala:

**KALE EGIN.-** Huts egin. Fallar.  
**KIKARA.-** Taza.  
**EGURALDILARI.-** Eguraldia iragartzen duena. Hombre del tiempo.  
**OZTOPO.-** Eragozpena, traba.

**IRAGARPEN.-** Pronóstico, anuncio.  
**ERREFRAU.-** Refrán.

**GORTU.-** Sortu. Volverse sordo/a.  
**BURURATU.-** Gogoratu, otu, gogoak eman. Ocurrírsele algo a alguien.  
**ZE.-** Bada. Pues.  
**AKTORE IZANIK.-** Siendo actor,  
**AHAL DEN ONGIEN.-** Lo mejor posible.  
**GERATUKO LITZATEKE.-** Quedaría



«Perdón...» . Nik sei t'erdia aldera grabatzen dut.

**H.-** Informazioa ez al da aldatzen hortik aurrera?

**X.D.-** Ez, ez. Hiru t'erdietan badaukagu informazio nahikoa **biharamuneko** iragarpena egiteko.

## Autografoak eta guzti eskatzen dizkidate kalean»

**H.-** Gauza harrigarri samarra gertatu da ETBn, eguraldiaren gizonak herri txikikoak biak, nekazal girokoak...

**X.D.-** Ez dakit zergatik. Halaz ere, ni donostiarra naizela esan behar. Ni hona, Alkizara, orain dela bi urte etorri nintzen. Baina, bai. Txikitan baserriz inguratuta bizi nintzen.

**H.-** Sinisten al duzu tenporetan?

**X.D.-** Nik ez dut uste hori fedea kontua denik. Fedea behar baldin bada zerbaitegarako, Jaungoikoan sinisteko edo, niretzat horrek ez dauka ezer ere. Ez du balio. Zientziak aparte niretzako ez da ezer. Gustatzen zait tenporen kontu hori, jendea gustatzen zaiolako, eta errespetu handia diot. Baina azkenekoetan esan zutena entzunda gero...; dena aldrebes ateratzen da. Gainera, lau hitzetan esaten dute hiru hilabetetan zer gertatuko den.

**H.-** Iragarpenean **huts eginez gero**, barkamena eskatu behar al da biharamunean?

**X.D.-** Oso gutxitan egin dugu kale, **bataz beste** hilean behin. Ez da erraza huts egitea. Ez da erraza dena dena ondo esatea ere. Gainera, kale egin dugunetan euria egingo duela esan dugu, eta gero ez du egin. Orduan hori jendea ez zaio inporta. Aldrebes denean, bai.

**BIHARAMUN.-** Hurrengo eguna.  
**HALAZ ERE.-** Sin embargo.  
**HUTS EGINEZ GERO.-** Huts egiten bada. Si se falla.  
**BATAZ BESTE.-** Batenaz beste, batekoz beste. De promedio.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

*Txakur ikusgarriak ditu Xebek etxean.*

**H.-** Zein duzu lanik gustukoena, **bikoizketa** ala telebistako hau?

**X.D.-** Biak asko gustatzen zaizkit. Baina bikoizketa izugarri gustatzen zait.

**H.-** Eta bietarako denborarik ba al duzu?

**X.D.-** Orain bai. Eguerdiko hamabiak arte libre nago. Lehen, ordea, hamar t'erdietarako joan behar lurreta aldera. Denbora gehiago behar nuen telebistakoa prestatzeko. Bikoizketa utzi beharra izan nuen. Orain ere utzi egingo nuke. Baina joan egin behar lurretako bidaiak ordaintzeko. Diru asko joaten da eguneroko joan-etorrietan.

**H.-** Zein pertsonaia **ospetsu** bikoiztu duzu?

**X.D.-** Marlon Brando, «Aitajauna» pelikulan, Luis de Funes, Gary Cooper, Peter Sellers... Marlon Brandorena oso polita izan zen. Hasieran jarri zidaten protesi bat haren itxura

hartzeko, **masailezurra** ateratzeko, beno, hasi **kotoiarekin** hasi nintzen. Gero konturatu nintzen: inportantea ez dela ahotsa, baizik eta nola esaten diren gauzak (Marlon Brandoren hitz egiteko modua errepikatuz).

**H.-** Eta antzerkia, utzita al duzu antzerkia?

**X.D.-** Bai. Baina orain proposamen bat egin didate, eta hortxe nago egin, ez egin. **Asti** handirik ez dut baina. Seguraski izango litzateke **bakarrizketa** bat, baina ikusiko dugu. Zinemaldiaren **aurkezpena** egin nuenean, berriro eskenatokiaren gainean egonda, **berpiztu** egin zitzaidan antzerkirako gogoa.

**H.-** Telebistan ere izaten da aktore-lana bada?

**X.D.-** Eguraldiarena ateratzen zitzaidanean deitu ninduten pertsonaia bat egiteko serie batetan, «A ze para»n. Baina ezin dena batera hartu.

**BIKOIZKETA.-** Doblaje.  
**OSPETSU.-** Famatua, sona handikoa.

**MASAILEZUR.-** Mandíbula.  
**KOTOI.-** Algodón.  
**ASTI.-** Denbora, beta.  
**BAKARRIZKETA.-** Monólogo.  
**AURKEZPEN.-** Presentación.  
**BERPIZTU.-** Reavivar.



## BAKAILAO ALMENDRADUNA

**2** Osagaiak: 1/2 kilo bakailao, 50 gramo almendra, baratxuri-ale bat, tipula, **irina**, perrexila, ardo zuria eta oliba-olio **birfindu** gabea.

Bakailaoa **gezatu** ondoren, irinetan pasa, eta frijitu piska bat. Sartaginetik atera, eta olio horretan bertan **gorritu** tipula **xehetua**. Gero, ardo zuria **erantsi**, eta sutan eduki **urritzen**. Baratxuria, perrexila eta almendrak morteuruan xehetu eta sartaginera. Bi minutuz edo eduki saltsatan. Bukatzeko, bakailao-zatiak hiru minutuz egosi saltsa horretan.



## EZTARRIA LEUNTZEKO

**2** **Erretzaileentzat** oso aproposa da edari hau. Eztarria hartuta badaukazu erremedio ona. **Baraurik** hartu behar da goizero-goizero. Bi goilarakada **ezti** ur epel-piskatean nahastu, eta limoi baten **zukua erantsi**. C bitamina asko **irentsiko** duzu horrela.

## INBUTURIK EZ ETXEAN

**2** Garai batean estrazazko edo egunkari-paperez egiten ziren **behin-behineko** inbutuak. Orain zilarrezko papera daukagu etxean horretarako. Bestela, plastikozko botilaren goiko aldea moztu, zulo zabal samarra dute baina.

Arrautzaren **gorringoa** eta zuringoa **bereiztu** nahi dituzu. **Baldar** samarra bazara, arrautza inbutuan sartu. Zuringoa zulotik behera joango da; gorringoa ez.



## MAKILAIA KENTZEKO ESNEA

**2** Aurpegia garbitzeko **ukendurik** ez duzu. Ez erabili urik. Sukaldera joan eta behi-esnea hartu. **Kotoi** bat esnetan busti, eta poliki-poliki igurtzi aurpegia. Esnea koipeduna bada, hobe.

**IRIN.**- Harina.  
**BIRFINDU.**- Refinar.  
**GEZATU.**- Gatza kendu. Desalar.  
**GORRITU.**- Dorar.  
**XEHETU.**- Txikitua. Desmenuzado.  
**ERANTSI.**- Gehitu. Añadir.  
**URRITU.**- Mermar.  
**LEUNDU.**- Suavizar.

**ERRETZAILE.**- Fumador/a.  
**BARAURIK.**- En ayunas.  
**EZTI.**- Miel.  
**ZUKU.**- Zumo.  
**ERANTSI.**- Gehitu. Añadir.  
**IRENTSI.**- Tragar.  
**INBUTU.**- Onila. Embudo.  
**BEHIN-BEHINEKO.**- Provisional.

**GORRINGO.**- Yema.  
**BEREIZTU.**- Apartatu. Separar.  
**BALDAR.**- Traketsa. Torpe.  
**UKENDU.**- Crema.  
**KOTOI.**- Algodón.



## ALDI BATERAKO FAMILIA BERRIA

**3** Gurasoak beren seme-alabak **hezteko** gai ez direnean, epaileek batzuetan gurasoen etxetik ateratzen dituzte umeak. Duela gutxi arte, ume horiek urtetan eta urtetan egoten ziren, **umezurtzen** antzera, **babesik** gabeko haurrentzako etxeetan. Ordea, etxe handi horietan, ondo zainduta ere, ezin familiaren gozotasuna aurkitu. Zergatik ez beste familia batzuetan **txertatu**, hori baita irtenbiderik egokiena? Aita-amek **guraso-agintea** delakoa dutelako. Noiznahi eraman dezakete haurra berriz etxera. Zeinek hartu nahiko du umea etxean handik urte batzuetara kenduko diotela jakinda? Edo arrisku hori **behinik behin** badagoela jakinik? Jende askok! Bai. Jende askok. Mirenek, adibidez. **Ezkongea** bera, duela zortzi urte Ana eta Xabier hartu zituen etxean. Ez zaio damutu **horraatik!**

Zortzi urte horietan berak bizi izan duena erakutsi nahi dio jendeari: «Gazteek zer den jakingo balute, jende gehiago egongo litzateke horrelako umeei **abegi** emateko prest». Umeek aurrerapen izugarria egin dute Mirenekin daudenez geroztik. Inork ez zekien ez zutela ondo entzuten, ez zutela ondo ikusten. Mireni esker, Ana eta Xabier beren arazoak **gainditzeko** bidean dira.

Iosune Alkiza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerbitzu Sozialetako langilea, etorri da Mirenekin. Iosunek datuak ekarri ditu; Mirenek, berriz, berak bizi izandakoak gogoan. Umerik ez da etorri, ordea, badute komunikabideetatik urruti egoteko eskubidea eta. Hemen aipatzen ditugun izenak ere asmatuak dira, ez baitiogu inori kalte egin nahi.

### Askok beren seme-alabak zituzten

Gaur egun 109 ume daude Gipuzkoan era horretan **banatuta**. Guztira, 77 familia dira, erdia baino gehixeago umeen

senitartekoak: aiton-amonak, izeba-osabak... Askok, hala ere, ez zuten zerikusirik ume horiekin, 37 familiak hain zuzen. «Umerik gabeko familiak izango dira umeak hartzen dituztenak?», guk.

Ez, bada! Askok bazituzten seme-alabak etxean: «Azkenekoak — dio Iosunek — hiru seme-alaba zituen etxean, 4, 3 eta 2 urtekoak. Orain urte betekoa hartu dute. Ume horiek ohituta zeuden urtero



**ALDI**.- Denbora.  
**HEZI**.- Hazi. Criar, educar.  
**UMEZURTZ**.- Huérfano/a.  
**BABES**.- Gerizpea. Protección.  
**TXERTATU**.- Injertar.  
**GURASO-AGINTE**.- Patria potestad.  
**BEHINIK BEHIN**.- Behintzat. Al menos.

**EZKONGE**.- Ezkondu gabea. Soltera/o.  
**HORRAATIK!** - (Esaldia indartzeko hitza) ¡Desde luego que no/que sí!  
**ABEGI**.- Harrera, ongietorria. Buena acogida.  
**GAINDITU**.- Goitu, gaina hartu. Superar.  
**BANATU**.- Partitu. Distribuir.



haur berri bat ikusten etxean. Beste hau, adibidez, alarguna da, bazituen lehendik beste zortzi edo bederatzia ume. Honek, berriz, lau anai-arreba hartu ditu...» Umeak banatzeko orduan horri ere **erreparatzen** diote, baina ez umearentzat hobe delako. Ez omen dago batere garbi zer den hobe umearentzat. Haur batzuk agian gustorago egongo dira *anai-arrebarik* gabe. Familiarentzat omen da hobe seme-alaba gehiago izatea.

## Nik ematen nion maitasuna gurasoengandik jaso nahi zuen»

Horrela, haurra inoiz gurasoengana itzultzen bada, **hezitzaileak** ez dira esku hutsik geldituko, mina ez da hainbestekoa izango. Bestalde, horrela ziurtatzen dute familiak ez zuela haurra adoptatu nahi. Oso haur gutxi daude **umeordeztan** emateko. Gipuzkoan, esate baterako, iaz 7 ume banatu ziren horrela, eskaerak 150 inguru zirenean. Batzuek zer egiten dute? **Zeharbidea** bilatu. Umea etxera ekarri epaileak noizbait guraso-agintea **emango dielakoan**. Eta helburua ez da behin betirako familia berrira jartzea. Helburua, azken batean, gurasoengana itzultzea da.

## Ana eta Xabier ume errazak ez

Mirenek lasai entzun du losunek esandakoa. Ezkongai da eta beste umerik gabea. Ez zuen haur bila ibili beharrik izan hala ere. Zerbitzu Sozialetakoak joan zitzaizkion bila, eskaintza egitera. Ana, zortzi urtekoa, eta Xabier, zazpikoa, ez ziren batere ume errazak. Aita erabateko **axolagabea**, ama burutik ondo ez, ia bakar-bakarrik hazitakoak ziren. Eskolan, joaten zirenean, oso atzera. Hizketan ere oso motz... Ezin edozeini eskaini,

hortaz. Bazekiten Miren oso **nortasun** handikoa zela eta bihotz zabalekoa. Eta hark baietz erantzun.

«Berez, hiru anai-arreba ziren. Txikiena, hala ere, beste familia batekin zegoen —dio Mirenek—. Beste biak ere ez banatzeko, biak batera hartu nituen. Haurtzaindegi batean lan egiten nuen **arte**an. Goizeko zazpietan atera behar nuen etxetik, eta umeak bederatzia arte ez ziren eskolara joaten. Emakume bat bilatu nuen —Diputazioak ume bakoitzeko 40.000 pezeta ematen dizkie— horretarako. Ez naiz errazaren zale, baina hasiera nahiko **latza** izan zela aitortu behar dut. Ezin haiekin komunikatu. Mutikoa aski erraz jarri zen egoera berrira. Neska, berriz, ez. Ez ninduen onartzen; oso **fidakaitza** zen. Ez zen pozik atera bere etxetik. Lan handia egin behar izan nuen niregana **hurbilazteko**. Baina, benetan onartu, ez ninduen onartu behin meningitisak jota ospitalean egon zen arte. Orduantxe konturatu zen nola maite nuen. Baina ordurarte izugarriak egin zizkidan etxean. Aitarekin nahi zuela esaten zidan askotan. Nik behin jantziak hartu eta maleta egin nion. Aita bisitan zetorren batean maleta hartu eta

harekin joateko esan nion. Ez zen joan, horraatik! Neskak borroka handia zuen barruan. Nik ematen nion maitasuna gurasoengandik jaso nahi zuen; horregatik ez zegoen gustora nirekin».

## Familiari ez zaio ezer ezkututzen

Eguneroko borroka hori Mirenek berak bakarrik bideratu zuen. Ez zen etengabe laguntza eske joan Diputazioko **adituengana**. Hala ere, aitortzen du familien bilerek on egin diotela. Psikologoa ere izaten da bilera horietan. Dena den, askotan beste **gurasoen** iritziak lagungarriagoak izaten dira, egoera antzekoak bizi izan dituztelako. Esate baterako, haurrak etxera eraman, eta uste ez zen arazoa azaltzen da askotan: «Beti entzuten genuen gauza bera —dio losune Alkizak— aurretik ez genielan den-dena esan, zerbait ezkutatu genielan. Baina, hori ez da **apropos** gertatzen. Familia berrian umeen izakera, arazoak eta gehiago nabarmentzen dira. Horregatik, gaur egun zera esaten diegu umeak eskaini aurretik: *hauxe da guk dakiguna*. Agian, ez



*Etxean ez zeukaten samurtasuna aurkituko dute familia berrian.*

**ERREPARATU.**- Reparar, fijarse.  
**HEZITZAILE.**- Hezi+tzaile.  
Educador/a.  
**UMEORDETZA.**- Adopción.  
**ZEHARBIDE.**- Vía indirecta.  
**EMANGO DIELAKOAN.**- Emango dielako ustean. Pensando que les dará.  
**AXOLAGABE.**- Arduragabea, utzia, zabarra.

**NORTASUN.**- Izakera.  
Personalidad.  
**ARTEAN.**- Orduan. Entonces, en aquel entonces.  
**LATZ.**- Lakarra. Aurkakoa: leuna, samurra.  
**FIDAKAITZ.**- Fida(tu)+gaitz.  
Desconfiado/a. Era berean: izukaitz, ulergaitz, barkagaitz...  
**HURBILARAZI.**- Hurbil(du)+erazi.  
Hacer que se acerque.

**ADITU.**- Jakituna. Experto/a, técnico/a, especialista...  
**APROPOS.**- Berariaz, propio, nahita. Adrede.





ARGAZKIAK: X. ELGEZABAI

**Oraindik ere badira familia babeslearen zain dauden ume gutxi batzuk.**

*dakizkigun gauzak azalduko dira gerora».*

## Beste hau alarguna da, bazituen lehendik beste 8-9 ume»

Horixe gertatu zitzaion Mireni, gerora konturatu zen umeek ez zutela ondo ikusten eta entzuten: «Okulistarengana joan eta umeak arazorik ez zuela. Eta nik baietz, umeak ez zuela ondo ikusten. Azkenean konturatu ziren **alboetakoa** ez zuela ikusten, **tutu** batetik barrena bezala ikusten zuela —*retinosis pigmentaria*—. Gero, ez zutela ondo entzuten. Eta horretarako aparailuak jarri behar izan nizkien. Ondo ikusi gabe, ondo entzun gabe, zer egingo zuten eskolan? Ia zortzi urte galduak inork zaintzen ez zituelako». Mirenek lana utzi behar izan zuen, osasunak huts egin ziolako. Ez dago triste horregatik. Umeekin egoteko **asti** gehiago dauka orain: «Jaungoikoari eskerrak, **bihotzekoa** izan nuen, eta hiru urte daramatzat etxean. Umeak **itsutzeko** arriskuan daudenez, ikusten duten

bitartean, saiatzen naiz gauzak erakusten, pinuen hostoak, loreak... gerora, zenbat eta gauza gehiago eduki gogoan, hobe».

## Gurasoengana gutxi itzultzen dira

Haurrak etxeratzean, batzuek gurasoen arazoak etxeratzan dituzte berekin. Gurasoek **tarteka-marteka** bisita egiten diete umeei; ez beti umeen onerako, ordea. Epaileak haien **gogoz kontra** kendu badizkie, batzuk umeak bereganatzen saiatzen omen dira, kapritxo guztiak eginez, **hartzaileen gainean gaizki esaka**. Izan ere, badakite ume horien iritziak baduela pisua epailearen aurrean. Haurrek inoiz erabakitzen badute gurasoekin itzuli nahi dutela, badute horretarako eskubidea. Azken batean, gurasoekin egotea da irtenbiderik onena; lehen baino hobeto egoteko, jakina! Dena den, helburu hori oso gutxitan iristen omen da, oso haur gutxi itzultzen da gurasoengana.

Mirenek ez du horrelako arazorik. Badaki aitak ez duela

umeak itzultzerik eskatuko. Laguntza baino gehiago **zama** izango litzateke aitarentzat umeak etxeratzea. Bestalde, umeek ez dute horrelakorik entzun ere egin nahi.

## Helburua, ahal dela, umea gurasoengana itzultzea

Oraindik ere ba omen dira ume gutxi batzuk familia **babeslearen** zain daudenak. Gipuzkoan hamar daude zerrendan. Haurrak hartzeko prest daudenen zerrendan, berriz, sei familia. Familia egokia bilatzen saiatzen dira Zerbitzu Sozialetakoak, adinari eta beste **ezaugarri** batzuei erreparatuta. Horrela, familia batzuek denbora askoan itxaron behar izaten dute. Familiek ez dute umearen itxura eta aukeratzerik, jakina! Ematera doaz, ez jasotzera. Iosunez dioenez, batek baino gehiagok eskatu du **HIES**aren antigorputzak dauzkan umea. **Eskuzabaltasunaren** froga hoberik?

**ALBO.**- Aldamena, ondoa.  
**TUTU.**- Hodia. Tubo.  
**ASTI.**- Beta, denbora.  
**BIHOTZKO.**- Infarto cardíaco.  
**ITSUTU.**- Itsu+tu. Volverse ciego.  
Era berean: gortu, zahartu, koskortu...

**TARTEKA-MARTEKA.**- Noizbehinka, lantzean behin. De vez en cuando.  
**GOGOZ KONTRA.**- Contra la voluntad.  
**HARTZAILEEN GAINEAN.**- Hartzaileei buruz. Sobre los receptores.  
**GAIZKI ESAKA.**- Marmarka, esamesaka. Murmurando,

criticando.  
**ZAMA.**- Pisua, karga.  
**BABESLE.**- Jagoleda. Protector/a.  
**EZAUGARRI.**- Berezitasuna. Característica, perfil  
**HIES.**- SIDA.



## BEHIN BAKARRIK ERABILTZEKO HORTZETAKO ESKUBILA

**2** Leku gehiagotan egongo da seguru asko. Azpeitiko jatetxe batean, komunean, zorro batzuetan hortzetako eskubilak daude, **hortzorea** eta guzti. Eta eskertu egiten da. Izan ere, gero eta jende gehiagok jaten du etxetik kanpo, eta horrela ez da erraza izaten hortzak zaintzea. Batzuek etxetik ekartzen dituzte eskubila eta hortzorea. Baina jatetxe guztietan **beharko litzateke** horrelako zerbitzua, eta, beharbada, jatekoa dagoen toki guztietan, ez bakarrik jatetxeetan.

Bartzelonan, ez hori bakarrik, badira eskubila eta hortzorea saltzeko makinak. 100 pezeta sartu, eta listo!




## AHOTIK BELARRIRA

**2** Enpresa bat ez du **zuzendaritzak** bakarrik **osatzen**. Langile **xumea** gustura egotea ere beharrezkoa da. Langile xumea pozik badago, ondo zainduko du **bezeroa**. Ikerketa batzuk egin dira erreklamazioei buruz, eta hauxe azaltzen da: pozik dagoen bezeroak beste bi bezero ekarriko ditu berarekin, eta haserre dagoenak hamar-hamabost bati adieraziko die bere haserre.

## PIPI KALTZALUZE

**2** Liburu hori irakurri nahi baduzue, Elkar argitaletxeak kaleratu du *Xaguxar* izeneko **bilduman**. Idazlea suediarra da, *Astrid Lindgren*. 1994ko Nobel Sari Alternatiboetako bat eman diote. Umeen eskubideak **defendatzeagatik** eman diote saria. **Epaimahaian**, Greenpeaceko **ordezkari** bat zegoen, beste bat Unicef-ekoa, Suediako Parlamentuko beste bat, eta abar.

Beste sarituak hauexek: Ken Saro-Wiwa nigeriarra, Hannumappa Reddy Sudarsshan mediku indiarra, eta beste batzuen laguntzaz, mediku horrek sortutako Vivekananda Girijana Karyana Kendra **elkartea** eta Trinidadeko Servol (Servicio Voluntario para Todos) **elkartea**.



## GIZAKIA HILTZAILE

**2** Ekonomia, luxua, ohiturak **zaindu nahia**, hiltzeko gogoa. **Arrazoi horiek kausa**, gizakiak 160 landare eta animalia espezie hiltzen ditu egunero munduan **barrena**.

**BEHIN BAKARRIK.**- Una sola vez.  
**HORTZETAKO ESKUBILA.**- Cepillo de dientes.  
**HORTZORE.**- Pasta de dientes.  
**BEHARKO LITZATEKE.**- Debería haber.  
**ZUZENDARITZA.**- Dirección.  
**OSATU.**- Formar, componer.

**XUME.**- Soila, apala. Simple, sencillo, mero.  
**BEZERO.**- Cliente.  
**BILDUMA.**- Saila. Colección.  
**DEFENDATZEAGATIK.**- Por defender.  
**EPAIMAHAI.**- Jurado.  
**ORDEZKARI.**- Representante.

**ELKARTE.**- Asociación.  
**GIZAKI.**- Ser humano  
**ZAINDU NAHIA.**- Zaintzeko gura edo desioa. El querer conservar.  
**ARRAZOI HORIEK KAUSA.**- Por esas razones.  
**BARRENA.**- Zehar, gaindi. A través de.



# DISKOAK



## SOROTAN BELE

Mundu Hegian, 2.700 pezeta

**3** Mundu Hegian hondarribiar-lezoarren bigarren diskoa da. Mikel Errazkin txirulajoleak osasun-arazoak direla medio, instrumentista-lanak utzi egin ditu, baina musiko izaten jarraitzen du eta diskoko ia musika eta hitz guztiak berarenak dira. Sorotan Bele taldekoei bigarren grabazio hau sekulakoa atera zaie, nik uste lehen Sorotan Bele hari mila buelta ematen dizkiola. Kalitatean asko irabazi dute, eta agian freskotasunean ez dute hasiera batetan espero zitekeen guztia galdu, oso gazte jarraitzen dute. Kantuak indar haundikoak dira, oso ondo eginak eta ondo joak. Kantuz osatutako diskoa da; banaka-banaka doinuak primerakoak dira, lan osoa batean entzutean homogeen samarra geratzen bada ere. Eta agian hitzak ez daude musikaren maila berean, baina, bueno, hirugarren diskorako ere utzi beharko degu zer hobeturi ezta?

## CATCHERS



Mute, 2.700 pezeta

**3** Gustatuko litzaidake talde honi buruz zerbait esatea, baina ez dakit... uste dut laudorioetan bakarrik geldituko nintzatekeela. Harrapatu naute. Eta hau azken aldi honetan ez zait sarritan gertatu. Irratian lan egiteak, eta batik bat egunero pop eta rock musikarekin lan egiteak galbahe bihurtu nau, gauzarik gehienek ihes egiten idate, pieza handiak behar dute izan, estilo horietan bai behintzat, nik heldu ahal izateko. Ba, hauek ez zaizkit pasatu. Ez dute Cranberries taldearen ospea, ez dute musikazaleen artean James taldearen izena, ez eta Veruca Salt taldearen snobismoa ere, baina era berean horiek dutena, eta zenbait kasutan falta zaiena ere badute. Ez dakit nongoak diren. Ez dut inon ezer topatu hauetaz. Taldean lau direla bai. Abestiak lasaiak dira, pop-rock estilokoak. Serio, azken egun hauetan ez dut besterik entzun. Barkatu, dastatzen. 1994ko diskorik onena. Eta listo.

Joseina Etxebarria

### Gomendioak

- PEARL JAM
- VITALITY - ROCK
- SHANE MCGOWAN AND THE POPES - SNAKE - POP/ROCK
- SIMPLE MINDS
- GOOD NEWS FROM THE NEXT WORLD - ROCK
- BIC AUDIO
- HIGHER POWER - ROCK
- ZENBAIT - THE UNPLUGGED COLLECTION - POP/ROCK



## PURCEL

The Fairy Queen  
N. Argenta, L. Dawson, Ch. Daniels, J.P. Fouchécourt, B. Loonen, F. Piolino, J. Correas, G. Banks-Martin  
Les Arts Florissants. Zuz: William Christie  
Harmonia Mundi France, HMC 1308.09 (2CD) DDD  
4.600 pezeta

**2** Shakespeareren Udako Gau Bateko Ametsa idatzian oinarritutako musika-lana dugu hau. Frantziako Les Arts Florissants taldea bere herrialdeko ahotsezko musika barrokoan espezialdua badago ere, grabazio honetan Purcell-en The Fairy Queen lanaren moldaketa bizia eta argitsua eskaintzen du. Antzerki-izpiritua ederki isladatzen dute abeslariak eta pasarte komikoak nabarmenarazteko trebetasuna erakusten dute. Henry Purcell hil zela hirugarren mendeurrena beteko da aurten. Haren lan hau entzuteko egokiera aparta.

## ZAP MAMA: Sabsylma

2.700 pezeta

**2** Zap hitza zapping-etik hartu dute eta hori da bost neska hauek euren abestiekin egiten dutena: hizkuntza batetik bestera, Afrikako musikatik Europa edo Estatu Batuetako erritmoetara pasatzen dira, etengabe, nahasketa berezi bezain ederra lortuz. Ez dute kanpoko laguntzarik behar, a capella abesten dute. Jatorria Zairen dute taldeko gehienek, baina Bruselan jaio dira, eta txikitatik irratia entzunez jaso dituzten eragin guztiak bildu dituzte orain kantu hauetan. Talking Heads taldeko David Byrne musikariaren laguntzari esker ezagunak egiten ari dira txoko guztietan.

Marijo Oria

**DIRELA MEDIO.**- Direla kausa. A causa de.  
**SEKULAKO.**- Egundokoa, izugarria. Fenomenal.  
**PRIMERAKO.**- Bikaina, oso ona.  
**ZER HOBETURIK.**- Algo que mejorar.  
**LAUDORIO.**- Gorantza, gorespena. Alabanza.  
**GALBAHE.**- Cedazo.

**OSPE.**- Ohorea, fama.  
**LASAI.**- Barea, geldia. Reposado.  
**DASTATU.**- Gozatu. Degustar.  
**GINARRITU.**- Basar, fundamentar.  
**ARGITSU.**- Luminoso.  
**TREBETASUN.**- Gaitasuna, ialetasuna, abildadea.  
**EGOKIERA.**- Aukera, parada. Oportunidad.

**APARTA.**- Ez-ohikoa. Extraordinario.  
**ETENGABE.**- Sin cesar.  
**NAHASKETA.**- Mezcla.  
**BEREZI BEZAIN EDERRA.**- Tan especial como hermoso/a.  
**ERAGIN.**- Influencia.





## PIRINEOAK, 1000 IGOERA.

Somportetik Vignemalera  
Miguel Angulo  
Elkar, 326 orr., 4.600 pta.

**3** Euskal Herritik kanpoko 200 **ibilaldi** aurkezten ditu Miguel Angulok. Aspe, Ossau, Arrens, Marcadau, Tena, Panticosa eta Otal dira aukeratutako lekuak. Batzuk ibilaldi errazak dira, beste batzuk, ordea, ez horrenbeste. Azken hauetan eskaladari **ekin** behar zaio, baina zailtasun gutxiko eskaladari, dena den. Igoeraren krokisak ere azaltzen dira, baita mapak ere. 200 argazki baino gehiago daude, koloretan, Angulok berak eginak. Eta oso garrantzizkoa: ibiltarientzako **aholkuak** ematen ditu liburuaren atarian. Bukaeran, berriz, igoeren **aurkibidea** dator. Aurkibide horretan igoera bakoitzaren abiapuntua zein den esaten du Angulok, eta ibilbidearen zailtasuna zein den, baita igotzeko zenbat denbora behar den ere... Baina ez eskatu Angulori inguruari buruzko istoriorik, edo jateko lekuak non dauden eta abar. Hau beste era bateko liburua da. Egutegia ere saltzen dute liburuarekin batera.

Hizkera aldetik, hizkera teknikoa du, alfabetatze teknikoa egiteko modukoa, esango nuke.



## EGUN OSORAKO POEMAK ETA BESTE

Juan Kruz Igerabide  
Pamiela, 56 orr., 550 pta.

**3** Lehengoan hala esaten zidan batek. Poesi liburuak kritikazterakoan, erreferentzi falta **nabarmena sumatzen** zuela. Beharbada, txikitatik poesiarako zaletasuna **ernaraziko** baligute, *Egun Osorako Poemak eta Beste* bezalako liburuekin gozatuko ginateke, poesia —eta natura— maitatzen ikasiko genuke seguruen, eta, bide batez, baita ulertzen ere. Belarrientzako liburua da, onomatopelak ugari dira, baita paralelismoak ere... Begientzako liburua da, hain dira ederrak Pedro Oses-en marrazkiak! **Irudimenerako** liburua da, hain dira ederrak Igerabidek egiten dituen konparazioak!



## LITERATURA UNIBERTSALA.

(KATALOGO OROKORRA, 1994)  
Eusko Jaurlaritzak, EIZIE, Ibaizabal, 40 orr.

**3** Hegats Aldizkarian esan zuen M<sup>re</sup> Jesus Olaziregik institutuetako ikasleek gutxitan irakurtzen zutela euskarara **itzulitako** literaturarik, eta Gerardo Markuletak esan zigun euskal literaturan azken urteotan gertatu den iraultzarik handiena itzulpengintzan gertatu dela. Baina literatur **itzulpengintzan** zer aukeratu handia dago. Bai. Euskaraz ere bai. 1990etik 1993ra bitartean

Ibazaibal argitaletxean ateratako liburuak zein diren jakin nahi baduzue, eskuratu katalogo hau. Hogeita hamar liburutik gora daude, **iruzkintxo** eta guzti— **zein baino zein ederragoak** irakurtzeko. Atxagak dioen bezala, itzultzaileek «hobe egiten gaituzte, eta baita, maiz, **bizkorrago** eta zoriontsuago ere». Eta zeinek ez du izan nahi zoriontsuago?



Katuen Testamentua  
Umeen kantu eta jolasak

## KATUEN TESTAMENTUA

(UMEEN KANTU ETA JOLASAK)  
Labayru Ikastegia, Super Bat, BIE, 84 orr., 1.500 pta.

**3** Gabonetako protagonistetako bat izan da *Katuen Testamentua* hau. Guk hemen liburua aurkeztuko dizuegu, baina bideoa ere badago, nahi izanez gero. Eta protagonista izan da, *Oskorri* eta Kukubiltxo herri askotan egon direlako, kantu eta jolas hauek ezagutarazten. *Oskorrik* musika jartzen zuen, eta Kukubiltxok antzerkia.

Badu alderdi aipagarriarik liburu honek: «Kantutegi hau zaharra eta berria dugu era batera. Zaharra, tradizioz, **belaunez** **belaun** gure **huri** eta herrietan kantatu izan diren soinu-hitzez hornitua delako. Berria, **artean** egin diren **bilketetatik** apartekoa delako: Labayru Ikastegiaren inguruan diharduten folklorezaleen bilketa delako, kantatzaileen ezpainetatik harakoa. Bilduma honetan diren gai edo bertasioak herriko iturrietatik zuzenean batuak dira, ez inondik hartuak» diote **hitzaurrean** Adolfo Arejitak eta Manu Aurrekoetxeak.

Jon Zabalegi

**IBILALDI.** - Marcha.  
**EKIN.** - Acometer, emprender.  
**AHOLKU.** - Gomendioa. Recomendación.  
**AURKIBIDE.** - Índice  
**NABARMEN.** - Argia. Evidente.  
**SUMATU.** - Nabaritu. Percibir.  
**ERNARAZI.** - Suspertu. Despertar, suscitar.  
**IRUDIMEN.** - Imaginación.

**ITZULI.** - Bihurtu. Convertir, traducir.  
**ITZULPENGINTZA.** - Itzulpen-lana. Traducción.  
**IRUZKINTXO.** - Irukin laburra. Breve comentario.  
**ZEIN BAINO ZEIN EDERRAGOAK.** - A cada cual mejor  
**BIZKOR.** - Bizia, arina.

**BELAUNEZ BELAUN.** - Belaunaldiz belaunaldi. De generación en generación.  
**HURI.** - Hiria. Ciudad.  
**ARTEAN.** - Oraindik, orain arte.  
**BILKETA.** - Bil(du)+keta. Recopilación, acción de recopilar. Era berean: azterketa, garbiketa, itaunketa...  
**HITZAURRE.** - Prólogo.



## MAITE IDIRIN: «Emakumeak ere bagaude euskal kantuaren historian»

**3** Zain geneukan Maite Idirin Baiona Ttipian, Pannecau kaleko *Zabal* liburudenda: Hogei urte badira liburudenda ireki zutela. Dena dela, lehenagotik da ezaguna bizkaitarra Iparraldean, kantari bezala batez ere. Baina **emazteki** bezala ere **egin zigun solas**, eta ama **legez**. Izan ere, esposatua baita Maite Idirin; Jokin Apalategi du senar, eta Ur, 22 urteko gaztea, seme. Lehendabiziko LPan Jokinen beraren, Amurizaren, Paulo Iztuetaren, Joxe Azurmendiren poemak musikatu zituen... baina egun letrak ere sortzeko gogoia **ernatu** zaio.

Maite Idirin 1943an Ugaon sortu zen, Miravallesen alegia, Zeberio ondoan; horkoak ditu gurasoak: «Ugao ez zen euskalduna, trenan pasatzen den herri guztiak bezala». Laster ikasi zuen gaztelera. Urte **lasaiak** izan zituen **haurtzarokoak** «nahiz eta beti bizi izan gauza batzuk ez zirela egin behar, edo kontuz egin behar zirela. Nahiz eta falangea eta *formación del espíritu nacional* izan, etxean gauza horiek ez zituzten onartzen». Bestalde, landareek «**sustraiak**» dituzte Maite Idirinen ume-garaian: «Garai batean amerikanoek esnea, **gurina**...ekarri zituzten, alimentazio-faltan geundelarik edo ez dakit zer. Guk baserrian esne freskoa, gazta freskoa egunero genuen, eta aitak esan zuen, *ezta pentsatu ere, zuk ez duzu hartuko esne hori*..Nik ez nuen hartzen, bakarra nintzen ez hartzen...Eta maistrak eta *zergatik ez du hartzen?* **Bo**, etxean ikasi dut nahi dudana egin behar dudala, ez besteek diotena». Gurasoak, garai hartan, **landarejaleak** ziren, eta horren ondorioz, Maitek ez du sekula **txerturik** hartu, txertua jartzeko



*Amaren besoetan.*

**EMAZTEKI.**- Emakumea.  
**SOLAS EGIN.**- Hitz egin, berba egin.  
**LEGEZ.**- Bezala.  
**ERNATU.**- Suspertu, bizkortu. Despertar, avivar.  
**LASAI.**- Barea. Tranquilo/a.  
**HAURTZARO.**- Haurtz+aro. Haur-garaia. Infancia. Era berean:

zahartzaro, gaztaro, helduaro...  
**SUSTRAI.**- Zuztarra, zaina, erroa. Raíz.  
**GURIN.**- Mantequilla.  
**BO.**- Ba, beno. Pues.  
**LANDAREJALE.**- Barazkiak eta horrelakoak jaten dituenak. Vegetariano/a.  
**TXERTU.**- Vacuna.



egunean etxera itzultzen zen: «Alta oso gaixorik egon zen gaztetan, eta mediku batek, ez kurandero batek, sendatu egin zuen eta denak barazkijale egin ginen».

Maite Idirinen aita ez zen erlijiozale, ama bai, eta alabak iritzi kritikoa azaltzen zuen: «Jainkoa beti *maskulinoa* da, eta Ama Birjina oso **esanekoa**... Beharbada, izeba batzuk banituen merkatariak, eta beti eduki dut biziki argi nere ekonomia behar nuela... Apezari askotan esaten nion, *Jainkoa juxtua bada, zergatik elizak ez du ezer egiten euskaldunok eskubidea izan dezagun gure hizkuntza praktikatzeko?* Apezak esaten zidan diktadura batean geundela... Amak eta aitak gerra aurreko kontuak kontatzen zituzten, eta laster ikasi nuen euskaldunen prolema bazegoela, hor nonbaiten».

Emazte den aldetik, liburu bat bada **esanahi** handikoa Maiterentzat, Simone de Beauvoir-en *Le deuxième sexe*: «Hor aurkitu nituen emakume bezala nituen galdera askoren erantzunak», eta Oteizaren «Quousque Tandem»ek euskal kulturari buruzko galdera-pila erantzun zizkidan, galdera horiek **errudun** sentiarazten baininduten». Parisen, berriz, Espainiako Estatuak **debekatu** liburu anitz irakurriko ditu: «Parisko urte horiek nahikoa sinpatikoak izan ziren, nahiz eta duro bat ez eduki. Jokinek ere garaje batean egiten zituen horrelako goardia batzuk... Apez-zaindari ere egin zuen. Bizitza biziki pobrea, baina oso aberatsa espiritualki».



**Antzerkia egiten.**



**Lehendabiziko kantaldiak Zeberion eta Euban egin zituen.**

### “Etorki” dantza-taldean

Bere herriko dantza-talde horretan hasi zen Maite gaztaroan. Elizako koralean ere kantatzen zuen, aitarren zaletasunari jarraiki. Hor ikasi zuen kantatzen. Dantza-taldean, berriz, euskalduntasuna ezagutu zuen, posible zela euskalduntasuna kalean. Beranduxeago San Anton koralean abestu zuen, eta han aurkitu zuen gitarra jotzen irakasteko norbait, Lurdes Iriondo hasia zen kantari. Animatu zen, eta Zeberion 1968an egin zuen lehendabiziko kantaldia. Geroxeago Arestik Atahualpa Yupankiren bi abesti euskaratu zizkion; Bilbon entzuna zuen Maitek Atahualpa, eta asko gustatu. Paulo Iztuetak ere beste bi kantu euskaratu zizkion, eta horrela argitaratu zuen **estraineko** diskoa ugaotarrak, Gereñok kudeatzen zuen Cinsan. Eta Ugaotik Eubara, eta hortik Bizkaia osora. Zentsura pasa behar izaten zuten, eta behin —Benito Lertxundi eta Oskorri ere han zeuden— Ondarroako kantaldi batean bi kantu ez beste guztiak zentsuratu zizkioten. Kantaldia baino lehen kantatu beharreko kantak **igorzen** zituzten ez daki ziur nora, eta han **onespena** jaso ondoren kanta zitezkeen. Berehala ikasi zuten nola jokatu: kantu batzuk igorri, eta ondoren beste batzuk kantatu. 68an ia Bizkaia osoa korritu zuen kantari, eta Gipuzkoan ere aritu zen piskat. Tartean txapelketa bat izan zen, eta taldeka Oskarrik irabazi zuen, eta kantari bezala Eztitxuk hartu zion aurrea Maiteri.

### 69an Iparraldera

Lagun batzuei laguntzera joan zen Iparraldera urte horretan. Eta hortik Parisa. Han ezagutuko du Jokin Apalategi: Mundu bat

omen zegoen Parisen. Lau urte egingo ditu han, unibertsitatera joan zen soziologian lizentzia **lortzera**. Auzo Latinoko Migel Arozenaren *Kandelarian* kantatzen zuen bizitzeko; hor ezagutuko ditu Isabel eta Anjel Parra, Kilapayum, Kalixakis...Eta Parisko metroan ezagutuko du, baita ere, Felix Ibarrondo, egun oso konpositore estimatua.

**Lankide** izango du Maitek bigarren diskoan. Eta berarekin joango da Flandriara, lehendik joana zen Benitorekin. Askotan joan da Flandriara, Malinasen ere izana da... 70 inguru horretan kultur etxe mordoak sortuko da Frantzia eta emanaldiz emanaldi dabilkigu M. Idirin: «Nahiko berria izan zen Euskal Herria, Britainia...herrien berpizte hori, kantaldi-pila egin nituen. Han ezagutu nuen Luis LLach.» Haurra Parisen jaio zen, Ur.

73an Euskal Herrian da. Ikastolak — ikastolakumeen musika-irakasle izana da—ari ziren sortzen, eta herriz herri ibiliko da kantari: «Kantariak eta ikastolak lotzen ditut, zeren kantaldiak montatzen ziren ikastolagatik. Ortizen ere montatu genuen, eta Maite Barrenetche ezagutu nuen. Sekulako lan etnografikoa egin zuen. Euskal Telebista hemen egin zen lehendabizi Maite Barrenetcheekin, baina



**ESANEKO.**- Esangina. Obediente.  
**ESANAHI.**- Adiera. Significado.  
**ERRUDUN.**- Erru+dun. Culpable. Era berean: bizardun, dirudun, hankadun...  
**DEBEKATU.**- Eragotzi, galarazi. Prohibir.

**ESTRAINEKO.**- Lehenengoa, lehendabizikoa.  
**IGORRI.**- Bidali. Enviar.  
**ONESPEN.**...- One(t)s(i)+pen. Aceptación. Era berean: bedekapen, luzapen, azalpen...

**LORTU.**- Erdietsi. Obtener.  
**LANKIDE.**- Lan+kide. Laneko laguna. Era berean: bazkide, ikaskide, adiskide...



feminismoa ere hemen sortu zen hegoaldean baino lehenago. 74an *Zabal* aidizkaria atera genuen, ez zen feminista bakarrik. Elkar ere urte horietan sortu zen, 20 kantari/idazle Iparraldeko eta beste hogeitaz Hegoaldeko...» esan zigun bizkaitar honek. 74an telebistara eraman zuen M. Idirin programa batean **esku hartzer**a. Franco, zorionez, hilik, Baionako Kontserbatorioan dugu M. Idirin musika klasikoa kantatzen ikasten: «Nik uste ni izan nintzela lehendabizikoetakoa, lehendabizikoa beharbada, musikariekin batera kantatzen, flautajole batekin eta... Miarritzen. Ordura arte denak gitarraekin jotzen zuten.... Etchepare kantuan ezartzen ere ni izan nintzen lehena». Baionan ikusiko du Maitek duen musika-hezkuntzarekin zer egin dezakeen, eta konturatu baitzen pianoa eta kantua **uztartu** dituzten musikagile sobera dagoela euskaraz: Salaberri, Almandoz, Canteloube, Usandizaga...; beraz, bide horretatik ekingo dio Miravalleskoak.

### Neli, Begoña eta Maite

Nelik Euskadiko Orkestran jotzen du, eta Begoña irakasle da Nafarroako Kontserbatorioan; Iruñean. *Camerata Contemporánea* taldea sortuko dute, gero *Euskal Kamerata* izango dena; urte asko egin dute talde honekin, eta disko bat argitaratu ere bai Aita Donostia eta Guridiren kantuekin 1986an. 1980an «Ahizpatasuna» diskoa kaleratu zuen emakumeen borrokaren adierazgarri. Eta **salaketa** bat egiten du: «Hitz bat esan nahi nuke: orain gertatzen ari diren zenbait gauza: euskal



*Iparraldera iritsi berrikan.*



### Parisen ateratako argazkia.

kantarien artean ez dakit zergatik emakumeak baztertu gaituzten, liburu bat idazten delarik, emakumeak agertzen gara lerro artean, eta bai Amaia Zubiriak eta nik baditugu diskoak hor agertzen diren gizon batzuek baino gehiago, *Kantuz Bizi* horretan ere bakarra, *Argian* atera zen artikulu luze bat orain urte 1' erdi edo, «Kantautore Berriak», ni ez naiz berria, baina Olatz Zugasti ezta aitatu ere... Hori sistematikoki da horrela. *Elhuyarren* entziklopedian ere ez gaude... Horrela egiten da historia, gaizki egin. Eta injustua da. Eta protesta egiten dut. Emakumeak ere bagaude euskal kantuen historian».

### Kantuen maitalea

Maite Idirinek esaten du *amateur* dela kantuan, hau da, maitale. «Ni kantuen eta artearen maitale naiz». Eta *Xaramela* abesbatzako partaideen irakasle ere bada, eta solista gisa ere parte hartzen du bai hor, bai beste koral batzuetan, «oratorio» izeneko musika eginez: Vivaldi, Rossini... Eta azken diskoa Alejandro Zabala pianojolearekin **burutu** du *Elkar* argitaletxearen eskutik, *Ametsetan* izeneko, eta hor daude, esate baterako, *Xorietan Buruzagi*, *Nik badut maitetxo bat*, *Ez dot sinisten*, *Xori Erresinula*, Egun batean... kantuek: «Pablo Sorozabal Alemanian egon zen hamar urtez, eta poeta aleman baten poemak musikatu zituen, H. Heine-renak. Hurrengo proiektua ere Alejandro Zabalorekin egingo du, aurrekoaren **ildo** beretik egin ere.

Uda-udazkenerako bere ezagun batekin etorriko zaigu Maite Idirin, Gabriel Arestirekin, hain zuzen: Izan ere, Arestik badu

*Bizkaitarrak* izeneko literatur lan bat, eta Rafael Castrok, Bilboko konpositoreak badu konposizio bat musika instrumentalarekin, errezipatuz eta kantu bidez emateko egin, ordu-erdi batekoa, eta hori egin nahi du, ahal balitz, Euskal Herriko Unibertsitatean, Baionan, edo Iruñean, edo bietan. Badira beste hiru poema, inon argitaratugabeak, eta Castrok musikan **ezarriak**. Horiek ere gureganatu nahi dizkigu Maitek ekitaldi berean.

Koralarekin ere baditu proiektuak; Landetako koralarekin Felipe Gorritiren meza abestu nahi baitu. Bost kontzertu Landetan, eta beste bat Angelun. Horrez gain, *Lamazou* kantu-biltzaile eta kantari bearnesaren lana eman nahi du ezagutzera. *Lamazouk* euskal kantuek bildu zituen, eta sekulako arregloak egin, eta kantatu. Baina bada besterik. Maite Idirinek berak sortutako kantuek plazaratuko ditu laster.

### Zinema eta antzerkia

Baina dena ez da kantua M. Idirinen bizitzan: zinema eta antzerkia ere atsegin ditu. Txikitan ere egin zituen **antzezlan** batzuk, eta Ortizen-ek ere bazuen antzerkitik: «Mugimendu kultural handia dago Iparraldean, batez ere Miarritzen, eta ahal dudan guztietan operara joaten naiz, Miarritzera, Pabera...»

Eta ahal duen guztietan mendira, *Mendikariak* taldearekin: «Pirinioak ondo ezagutzen ditut, baina eguraldi onarekin... Beti joan izan naiz mendira, txikitatik» esan digu.



*Seme baten guraso dira Maite eta Jokin.*

**ESKU HARTU.**- Parte hartu. Participar.  
**UZTARTU.**- Lotu, bat egin. Atar, unir.  
**SALAKETA.**- Sala(tu)+keta. Denuncia. Era berean: azterketa, idazketa, neurketa...

**BURUTU.**- Gauzatu, zertu. Llevar a cabo.  
**ILDO.**- Surco.

**EZARRI.**- Jarria, ipinia.  
**ANTZEZLAN.**- Obra de teatro.



## NAFARROAREN HAIZEBERRITUA


**3** Mantxako On Kixotek El Perdon-en ikusi izan balitu, seguru eraso egingo ziela, «**erraldoiak dira!**» esanez; alferrikakoak izango ziren Sancho Panzaren **aholkuak**: «**errotak dira!**»; «erraldoiak dira!» errepikatuko zuen On Kixotek. El Perdon mendia Nafarroan dago, Iruñetik gertu, eta hango errotak erraldoiak dira, **zinez**. Sei dira errotok eta haizearekin mugitzen dira. Horrela sortutako energiari eolikoa **deritza**. Abenduan hasi ziren martxan. Nafarroako lehendabiziko parke eolikoa osatzen dute sei errota horiek.

Instituto Nacional de Meteorologiarenak aparte, Nafarroan haizearen indarra neurtzeko lekuak, hamar dira: Arangoiti, Carrascal, Gorramendi, Loma Negra, Oranzurieta, El Perdon, Andia, Usua, N<sup>o</sup> Señora del Yugo eta Aralar. Haizea nahiz eguzkia neurtzeko, berriz, hamazazpi: Agoitz, Lizarra, Etxarri, Isaba, Lekaroz, Noain, Sartaguda, Orreaga, Aguilar de Codes, Tuteria, Esa, Illundain, Tafalla, Kadereita, Irabia, Zarrakaztelu eta

Montes de Cierzo. Hamazazpi neurtoki horiek 1991n jarri ziren martxan. *Ikerlan*-ek zituen datuen arabera aukeratu ziren hamazazpi leku horiek.

Errota hauekin energia garbia sortu nahi dute, **ingurugiroa** kutsatuko ez duena, eta berritzen dena. Haize-indarrez energia sortzeko edo, nahi bada, proiektua errentagarri izateko, haizeak segundoko sei metroko abiada izan behar du gutxienez. Segundoko sei metrotik gorako

abiada —urteko batz bestekoa da, jakina— hamarretik zortzi lekutan neurtu dute; El Perdon-en segundoko 8,7. Urtero Iruñeko kaleko argiak pizteko adina energia sortuko dute sei errota horiek. Nafarroako EHN (Hidroeléctrica de Navarra S.A) konpainiak 800 milioi pezeta inbertitu nahi ditu El Perdon-eko proiektuan. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Aurrezki Kutxak, Iberdrolak eta Cementos Portland-ek akzioak dituzte EHN-n.



*Urtea bukatu aitzin errota gehiago jarri nahi dituzte Nafarroan.*

**ERRALDOI.**- Gigante.  
**AHOLKU.**- Gomendioa. Consejo.  
**ERROTA.**- Eihera. Molino.  
**ZINEZ.**- Egiatan, benetan.  
**DERITZA.**- Se le llama. (Aditza: eritzi).

**INGURUGIRO.**- Medio ambiente.




Haizeak 14 km/orduko abiada hartzen duenean, aerogeneragailua martxan hasten da, **argindarra** sortzen alegia. Eta 50km/orduko abiada **erdiesten** duenean, aerogeneragailuaren indarra 500 kilowatitara iritsiko da, gehienezko indarra alegia. Haizea 50-90 km/orduko tarte horretan badabil, 500 KW-ko potentziarekin arituko da tresna. Baina 90km/orduko abiadatik gora, makina itzali egiten dute, badaezpada ere. Argindarra **zutabeak** barruan duen kable batek eramango du lur azpian dauden bi transformadoreetara. Transformadore bati hiru errotatako argindarra ailegatzeko zaio, eta besteari beste hiruretakoa. Transformadoreak 22.000 voltitara jasotzen du helden zaion indarra. Lur azpitik etxola batetara joango da eta hango transformadore bati esker, kable bidez eramango da energia hori; kable horiek dira, hain zuzen ere, sistema honek duen alde txarretako bat.

Sei errota daudela esan dugu, baina urtea bukatu **aitzin** beste hogeita hamalau jarri nahi dituzte Nafarroako zenbait tokitan, Nafarroaren erdialdean eta iparmendebaldean **batik bat**. Mendearen bukaerarako berrehun errota jarri nahi dituzte, bospasei parke eolikotan, guztira 16.000 milioiko inbertsioaren bitartez. Errota guztiak martxan jartzen badira, 100 megawatioko potentzia sortuko dute. 100 megawatio potentzia gutxi asko 300 milioi kilowatio/orduko dira. Egun Nafarroak 2.400 milioi kilowatio/orduko gastatzen ditu urtean. Gaur egun energia horren ia laurdena Nafarroan bertan **ekoizten** da, zentral hidroelektrikoetan **endemas**.

Nafarroako industrian ere izan dezake **eragina ekimen** honek. Iruñean Gamesa Eólica S.A. elkarteak sortu da. Elkarrekin honetan Arabako Gamesa da nagusi, eta Vestas talde daniarrak akzioen %40a du, SODENAK, berriz, % 9a. Gamesa S.A.k egingo ditu aerogeneragailuak. El Perdon-eko errota bakoitzak 60 milioi pezeta balio ditu.

Errota bakoitzak hiru zati ditu, nolabait esatearren: zutabea, aerogeneragailua eta helizea,



**Zutabeak 40 metrokoak dira.**

hiru besotakoa. Besoak 20 metrokoak dira, eta oinak halako bi. Oinak 28,5 tona pisatzen ditu eta beso bakoitzak 2 tona. Oina, azpiko aldean, 3,5 metro da bueltan, eta goiko aldean 2 metro. Hain errota handiak **izaki**, ez da komeni izaten oso leku menditsu eta malkarretara eramatea, garestiago ateratzen baita ipintzea. Horregatik aukeratu dute El Perdon, argindarraren postetatik hurbil dagoelako **tontorra**.

### Energia garbia

Energia eolikoak ez du CO<sub>2</sub>rik sortzen, eta hori du alde. **Emán dezagun** energia honen bidez 300 megawatio argindar ekoizten direla urte betean. Horren ondorioz, 300.000 bat tona CO<sub>2</sub> gutxiago aireatuko lirateke urte horretan, eta ia 6.000 tona sufre-oxido eta 900 bat tona

nitrogeno-oxido gutxiago ekoiztuko urtearen **buruan**. Nafarroak 2.000. urterako, urteko behar duen energiaren %10a ekoiztu nahi du errota eoliko bidez. Portzentaia hori bera lortu nahi du Europar Batasunak 2.030. urterako.

CO<sub>2</sub>a naturaren **etsai galanta** izan arren, zenbait ekologista kezkatuta dago. Paseko **hegaztiekin** argindarraren kablea jo, eta hil egiten direla. Hala ere, EEBBetan ia 7.000 errota eoliko daude, eta bi urteren buruan 500 hegazti bakarrik akabatu ziren. Bestalde, errota hauek paraje zabalak behar dituzte jartzeko, eta zarata ere dezentekoa ateratzen dute. Horregatik saiatzen dira paraje ez oso jendetsuetan jartzen, eta, zarata berriz, errota indar handienarekin ari denean, haizeak zarata handiagoa ateratzen du tresnak berak baino.

**ARGINDAR.**- Elektrizitatea.  
**ERDIETSI.**- Lortu, iritsi. Lograr.  
**ZUTABE.**- Zutaina. Columna.  
**ETXOLA.**- Txabola. Borda.  
**ALDE.**- Alderdia. Lado, aspecto.  
**AITZIN.**- Aurretik. Aurkakoa: ostean, ondoren.  
**BATIK BAT.**- Batez ere. Sobre todo.  
**EKOIZTU.**- Producir.  
**ENDEMAS.**- Batez ere, gehienbat.

**ERAGIN.**- Influjo.  
**EKIMEN.**- Iniciativa.  
**IZAKI.**- Baitira, dira eta.  
**TONTOR.**- Gailurra, erpina. Cumbre.  
**EMAN DEZAGUN.**- Demagun. Supongamos que.

**BURUAN.**- Al cabo de.  
**ETSAI.**- Arerioa. Enemigo.  
**GALANT.**- Gaitza, handia.  
**HEGAZTI.**- Ave.



# EZETZ ASMATU

2

1.- Denok ezagutzen dugu juduen zazpi besoko **argimutilla**, baina zein da haren izena?

- A. Farga
- B. Menorah
- C. Tora

2.- Brasildarrak zuriak, beltzak, mestizoak edo «gorriak» (indioak) izan daitezke, baina zeinena da talderik handiena?

- A. Beltzak
- B. Mestizoak
- C. Zuriak

3.- Mahai Borobileko zaldun bat Arturo erregearen emazteaz **maitemindu** zen. Nor?

- A. Galahad
- B. Lantzarote
- C. Pertzebal

4.- Hona, 1986ko **errolbaren** arabera, Euskal Herriko hiru hiriburutako biztanle-kopuruak: 194.446, 180.078 eta 171.675. Zein dira hiri horiek?

- A. Gasteiz/Iruñea/Donostia
- B. Iruñea/Gasteiz/Donostia
- C. Gasteiz/Donostia/Iruñea

5.- Nongo dirua da *drakma* delakoa?

- A. Grezia
- B. Hungaria
- C. Turkia

6.- Zer ziren Antzinateko Greziako *hoplitak*?

- A. Behe mailako **gizaki** libreak
- B. Esklabuak
- C. Gudariak

7.- Zer aurkitu zuen Wilhelm Roentgen-ek 1895ean?

- A. Erradiaktibitatea
- B. Gamma **izpiak**
- C. X izpiak

8.- «Arrosei buruz filosofatu egin daiteke, baina patatak baldin badira... jan egin behar». Nor da esaldi espiritual honen egilea?

- A. J.W.Goethe
- B. Benito Mussolini
- C. Benjamin Franklin

9.- Neanderthaleko gizonaren ondoren, gure **asaba** zuzena den Cromagnonekoa azaldu zen. Zenbat urte dira *Homo Neanderthalensis* delakoa desagertu zela?

- A. 20.000 urte
- B. 40.000 urte
- C. 50.000 urte inguru

10.- Musikaren alorrean, zer adierazten du *scherzo* hitzak?

- A. Ezkerrez jotzeko zatia
- B. Zati aski lasaia
- C. Zati bizi eta alaia

11.- Non dago San Markos Basilika?

- A. Erroma
- B. Florentzia
- C. Venezia

12.- Donald, ilobatxoak, Gilito osaba, etab. ahate-familia ezaguna dugu, baina ez oso arrunta. Esaterako, zenbat behatz dituzte esku bakoitzean?

- A. Bat ere ez
- B. 3
- C. 4

13.- Ameriketako zein kolonia espainiar izan zen azkena independentzia eskuratzen?

- A. Kuba
- B. Peru
- C. Uruguay

**ARGIMUTIL.**- Argiontzia. Candelero.

**MAITEMINDU.**- Enamorarse.

**ERROLDA.**- Censo.

**GIZAKI.**- Ser humano.

**IZPI.**- Rayo.

**ASABA.**- Arbasoa. Antepasado.



14.- Sumatra eta Javaren artean dago Krakatoa. 1883an bertako **sumendia** lehertu egin zen izugarritzko **hondamendia** sortuz. Badakizu leherketaren burrunba zenbat kilometrotara entzun zen?

- A. 1.700 km.
- B. 2.500 km.
- C. 4.800 km.

15.- Zein da -batz beste- Eguzkitik Lurrerainoko distantzia?

- A. 2 milioi kilometro
- B. 150 milioi kilometro
- C. 300 milioi kilometro

16.- Horia eta urdina nahastean, zein kolore berri lortzen da?

- A. Berdea
- B. Gorria
- C. Laranja

17.- Julio Zesar **ospetsua**, Alexandro Handia bere garaian bezala, **gaitz** batek joa zen. Zein zen gaixotasun hori?

- A. Epilepsia
- B. Sifilisa
- C. Tuberkulosia

18.- **Bazenekien** D'Artagnan historikoa Maastricht-eko setioan hil zela? Pertsonaia horren eta lagunaren abenturen berri eman zigun **elaberrigile** frantses batek bere *Hiru mosketariak* eleberrian. Nork?

- A. Honoré de Balzac
- B. Alexandre Dumas
- C. Emile Goncourt

19.- Batz beste zein da euli baten bizitzaren **iraupena**?

- A. 4 egun
- B. 4 aste
- C. 4 hilabete

20.- Nongoak dira *panama* izeneko kapeluak?

- A. Ekuador
- B. Kuba
- C. Panama

SOLUZIOAK  
46. ORRIALDEAN



**SUMENDI.-** Garmendia. Volcán.

**HONDAMENDI.-** Porrokaldia, ausiabartza, txikizioa. Destrucción.

**OSPETSU.-** Famatua, sona handikoa.

**GAITZ.-** Gaisotasuna, eritasuna.

**BAZENEKIEN.-** Ya sabías.


**ELEBERRIGILE.-** Nobelagilea. Novelista.

**IRAUPEN.-** Duración.



## ERREGUETAN

**2** Hurrengo abestia *Boga-Boga* liburutik hartu dugu. Letra Baleriano Mokoroa tolosarrarena da. Doinuak ez du egile ezagunik. Bertsoak zortziko nagusian daude.



Erreguetan ari nintzala  
 artu nuen **albistea**.  
 Ama zureak nai ez duela  
 biok elkarganatzea.  
 Nola ez neukan **oraindiokan**  
 gauz ori erabakia,  
 berbetatikan asmo artzen det  
**lekaimetan** sartutzia.

**Miñ-eriturik** arkitzen danak  
 egin bearko negarra.  
 Naiagatikan logratu ezin  
 desio nuen **izarra**.  
 Mundu ontatik eramango det  
 damutasun bat bakarra:  
 zu **gabetanik** nere bizitza  
 emen igaro bearra.

Ez egin arren, Inaziotxo,  
 orregatikan negarrik.  
 Mundu onetan ez dago, bada,  
 egiterikan nai danik.  
 Oroitu zaitez beste bat ere  
 badagoela oraindik,  
 goiz-gauetako errezueta  
 ez naiz aztuko zugatik.

Zure izena badaukat eta  
 edukiko det gogoan.  
 Besterenikan ez zait sartuko  
 nere bizitza osoan.  
**Debekatutzen** duten ezkeror,  
 ezkonduzteza munduan,  
**saia gaitzen** alegiñian  
 alkartutzeko zeruan.

**ALBISTE.** - Berria. Noticia.  
**ORAINDIOKAN.** - Oraindik.  
**LEKAIME.** - Moja. Monja.  
**MIÑ-ERITU.** - Gaisorik, minez. Dolido.  
**IZAR.** - Estrella.  
**GABETANIK.** - Gabe, barik.

**DEBEKATU.** - Eragotzi, galarazi. Impedir.  
**SAIA GAITEZEN.** - Ahalegindu  
 gaitzen. Esforcémonos.



## ZINEAK 99 URTE

**3** Aurten, abenduan, beteko ditu ehun urte Lumière anaien zinematografoak. Denborapasa gisa zabaldu zen —feriaz feria ibiltzen ziren hasiera batean zinematografoak— eta bera izan zen lehen komunikabide demokratikoa. Ez zegoen irakurtzen jakin beharrik pantailako dokumentalak eta ulertzeko. Arterako **bidea** ere berehala **urratu** zuen. Parisko lehen emanaldia 1895ean izan bazen ere, gurera hurrengo urtean iritsi zen, 1896ko udan hain zuzen. Miarritzen hasi, eta ondoren Donostia, Bilbo, Iruñea eta Gasteizen aurkeztu

**Sorkuntza** gehienetan bezalaxe, pausu asko emanak ziren aurretik. Ez dago inolaz ere Edisonen kinetoscopia ahazterik. Aparailu hartan irudi **mugikorak** agertzen ziren, argazkiak oinarri. Baina Edison ez zitzaion bururatu irudiak pantailan proiektatzerik tamaina handituz eta denek batera ikusteko moduan. Horixe izan zen zinematografoaren abantailarik nabarmenena, **banan-banan** ikusten zena, ikusle-talde zabal bati aldi berean eskaini ahal izatea. **Ikuskizuna** **hastear dago**.

Duela ehun urte Parisko Grand-Caféko Indien aretoan bilduta zeudenak **harri eta zur utzi** zituen askak berriak. Irudi bizidunak ziren. Longo lantokitik ateratzen ari ziren langileak **oihaletik** irteten zirela uste zuen batek baino gehiagok. Eta trenaren irudiek jendea harritu baino gehiago izutu egin zutela idatzi izan da.

Eta Paristik mundu zabalera. Pedro Maria Unsain ikerlariak gure herrira nola iritsi zen aztertu zuen orain urte batzuk. Galdezka joan garenean, berak idatzitako liburua eskaini digu, «El Cine y los Vascos», datu horiek guztiak ez baitira erraz gogoan hartzen. Fernández Cuenca zine-ikertzaileak dioenez, Promiok, Lumière anaiak Madrilera bidali zuten zinegileak, Donostian 1896ko ekainaren 24ean aurkeztu zuen zinematografoa. Baina,


badirudi Promio errege-erreginengana joan zela Donostiara, haien irudiak hartzera, ez zinematografoa jendaurrean aurkeztera. Garaiko egunkariak behintzat ez zuten **aurkezpenaren** berrik jaso. Miarritzeko proiektzioak, ordea, izan zuen **oihartzunik**.

### Miarritze, 1896ko abuztuak 1

Palais etorbideko Photographie Maurice aretoan izan zen, beraz, jendaurreko lehen erakustaldia. Miarritzeko Amabirjinaren Harkaitza, itsasontzi bat barran sartzen, **zezenketa** bat eta bertako beste zenbait ikuskizun

proiektatu zituzten. Bestalde, Miarritze mundu guztiko aristokraziaren bilgunea **izaki**, Errusiako Zar berriari koroa ezartzen eta Espainiako errege-erreginak Donostian ere ikusi zituztela diote garaiko kronikak.

Eta Miarritzetik Donostiara, Miarritzera bezala, hiri horretara biltzen baitziren aristokratak, aberatsak eta Espainiako errege-erreginak. Bost egun geroago izan zen emanaldia, abuztuaren 6an. Badirudi ez zela Miarritzeko proiektore bera izan, Promiok han abuztu osoan egin baitzituen emanaldiak. Boulevarrean erabili zuten aparailua Edisonak asmatutakoa zen. Lumière anaiak



*Trenaren irudiek jendea harritu baino gehiago izutu egin zutela idatzi izan da.*

**BIDEA URRATU.** - Bidea egin. Abrir camino.

**SORKUNTZA.** - Sor(tu)+kuntza. Asmakuntza. Creación, invento. Era berean: hizkuntza, trebakuntza, hezkuntza...

**MUGIKOR.** - Móvil.

**BANAN-BANAN.** - Banaka-banaka. De uno en uno.

**IKUSKIZUN.** - Espectáculo.

**HASTEAREN EGON.** - Hasteko zorian edo puntuan egon.

**HARRI ETA ZUR UTZI.** - Erabat txundituta utzi. Dejar de una pieza.

**OIHAL.** - Ehuna. Tela.

**AURKEZPEN.** - Aurkez(tu)+pen.- Presentación.

**OIHARTZUN.** - Eco.

**ZEZENKETA.** - Corrida de toros.

**IZAKI.** - Baitzen, zen eta.



Parisen zinematografoa erakutsi ondoren, Edisonek **nonbait** bere kinetoscopioari aldaketa batzuk egin zizkion. Donostiako kinetografoak irudiak berezko tamainan ematen zituen, kinetoscopioak ez bezala. Txaloa ugari jaso omen zuen. Baina badirudi ez zuela hainbesteko **arrakasta** izan. Zazpi egunez bakarrik izan ziren emanaldiak. Kinetoscopioa, berriz, —bakarka ikusi beharrekoa— urte bete lehenago bi hilabete t'erdiz egon zen Donostian.

## Miarritzetik barrena iritsi zen Euskal Herrira

Bilbora ere berehala iritsi zen askakuntza berria, abuztuaren 9an. Arriaga antzokian erabili zuten proiektorea Liondik ekarritakoa zen, Lumière anaiek asmatutakoa, beraz. Gobernadore Zibilaren proiektzio-baimena oso zuhurra izan omen zen. Proiektatzeko baimena bai, baina **ezbeharren** bat gertatuz gero, **tramankulua** kenduko ziela adierazi zuen. Ordurako ba ote zekien Gobernadore Zibilak zeluloideak erraz su hartzen

zuela? Dena dela, garbi azaldu zen handik urte batzuetara suaren beldurrak berak ere hil egiten zuela. 1912an Bilboko Teatro Circon 46 lagun hil ziren, itota gehienak, baten batek, txantxetan edo, sua zegoela oihukatu eta gero.

## Iruñean borroka eta dantza

Iruñeko Principal antzokira udazkenean iritsi zen zinea. Beltzen arteko borroka, **sutegian** burdina lantzen, nekazariak eta behiak, hondartza bat... eta, denetan arrakastarik handiena izan zuena, dantzariak dantzan. Ikustaldi batean txalo-zaparrada jaso omen zuten irudi haiek, eta berriz proiektatzeko eskatu jendeak. Zinta berriz biltzea lan zaila zelako, ez zieten **jaramonik egin** ikusleei. Edo agian hurrengo saiora joanarazteko **akuilutzat** erabiliko zuten jendearen irrika hura.

Hilabete geroago aurkeztu zen Gasteizen, Florida kaleko Teatro Circon. Don Juan Tenorio antzeztu ondoren proiektatu zituzten irudi bizidunak. Antzeztanak baino **harrera** hobea izan omen zuen, txaloa ugari entzun baitzen ikustaldi hartan. Iruñeko pelikulez

gainera, irudi **lizunagorik** ere ikusi zuten gasteiztarrek. Azken egunean, putetxe bateko irudiak ere azaldu ziren, jende askoren gozamenerako. «El Diario de Alava»k, ordea, ez zuen ondo hartu ikuskizun hura. Gobernadoreari zigorra ezartzeko eskatu zioten **biharamuneko** egunkarian. Gobernadorearen erantzuna zein izan zen ez dakigu, baina, dirudienez, han bukatu ziren saioak

## Donostiako lehen emanaldiek 7 egun bakarrik iraun

Badirudi lehenengo erakustaldi horien ondoren zinea ez zela berehala **finkatu**. Artean ez zegoen zine-aretorik. Donostian, adibidez, 1900.era arte, Arte Ederretako Jauregia moldatu baino lehen, ez zegoen zinerako areto **aproposik**. Bitarte horretan kafetegietan, feriako barrakoietan eta iraun behar izan zuen. Zineaz baliatu zen lehenbiziko kafetegia Miarritzeko Café Anglais izan zen. 1896ko irailean hasiak ziren arratsaldero pelikulak proiektatzen aipatutako kafetegi horretan. Ohitura hori berehala zabaldu zen beste hirietara ere. Donostian, esate baterako, gutxi batzuk hasi eta handik hamabost urtera, ia kafetegi guztietan izaten ziren zine-emanaldiak. Feriariak ere diru-iturri ona aurkitu zuten zinean. Festaz festa ibiltzen ziren batean Bilbon, bestean Donostian, hurrengoan Iruñean. Farrusiniaren barrakan pelikulak atzeraka proiektatzen zituzten barre eragiteko. Beste batean gezurrezko bidaiak antolatzen ziren. Tren-bagoi batean sartuta, elurrak zuritutako parajeak, mendiak eta ikusten ziren atzeko aldetik. Piskanaka-piskanaka mende honetako lehen hamarkadan enpresari ibiltariak zine-aretoak irekitzen hasi ziren: Iruñean Cosmopolita, Bilbon Olimpia...



*Gasteizko Teatro Circo. Gasteiztarrek antzoki horretan ikusi zituzten lehen fotogramak 1996an. Handik urte batzuetara erre egin zen antzokia.*

**EZBEHAR.**- Zoritxarra. Desgracia, accidente.  
**TRAMANKULU.**- Tresna, trastea. Aparato.

**SUTEGI.**- Fragua.  
**JARAMON EGIN.**- Kasu egin, aintzakotzat hartu. Tener en cuenta.  
**AKUILU.**- Eztena. Agujón.  
**HARRERA.**- Abegia, ongietorria. Acogida.

**LIZUN.**- Gordina. Lascivo, verde.  
**BIHARAMUN.**- Hurrengo eguna. Día siguiente.  
**FINKATU.**- Estabilizarse.  
**APROPOS.**- Egokia. Adecuado.





«Au pays des basques», 1930ekoa. Pelikula honetan entzun ziren euskarazko lehen hitzak.

Zinearen arrakasta izugarria izan zen. 1914ean Gipuzkoako egunkari bateko kazetariak antzerkiari **eraso latza** egin ziola salatzen zuen. Astegunetan ere joaten zen jendea zinera, **orain ez bezala**. Diru-iturri erraza ikusita, gero eta zine-areto gehiago zabaldu ziren. Baina enpresarientzat ere bazen arriskurik, lehenago aipatutako suteen arriskua. Urte gutxitan erre ziren Donostiako Novedades, Teatro Circo eta Arte Ederretakoa, Iruñeko Belloc eta Gasteizko Teatro Circo.

### Festak eta ospakizunak jasotzen

Zine-**ekoizpena**, berriz, ez zen oso ugaria izan gurean. Lehenengo irudiak Promiok jaso zituen 1896an, Donostian: Espainiako errege-erreginenak. Miarritzen erakutsitako Iparraldeko paisaiak ere aurrenekoetakoak izan ziren.

Gero, 1908an Pathé etxeko zinegile batek Donostiako ihauteriak, estropadak eta «Jura de Bandera en San Sebastián» jaso zituen. Iruñean ere urte horretan filmatu ziren San Ferminak. Etxe ekoizlerik ez zen izan urte askoan, 1915ean Bilbao Film sortu arte. Ez dago haien lanaren **aztarnarik**, ezta Donostian 1916an sortutako Magna Films etxearenik ere. Hasiera zailak izan ziren noinbait. Gasteizen 1918an «Jose txu» fikziozko pelikula burutu nahi izan zuten, eta horrek ere **kale**. Ez omen zuten bukatu.

### Gasteizen Gobernadore Zibilaren zigorra?

Eusko Ikaskuntzaren erabakiz burutu ziren handik gutxira, 1923an, lehen dokumental

etnografikoak, «Euzko Ikusgayak». Espainian ere ez omen zen horrelakorik garai hartan. Fikziozko lehen pelikula Bilbon egin zuten, «Un Drama en Bilbao» izenekoak. Hispania Film akademiak lortu zuen 1923an pelikula hasi eta bukatzea. Hurrengo urtean lehen luzemetraia burutuko dute «Eduarne, Modista Bilbaina». Barakaldoko Azkona anaiek «El Mayorazgo de Basterretxe» pelikula mutu sonatua bukatu zuten 1929an, iada **zine ahostunaren** eraso hasia zenean.

Zine ahostunak ekarri zuen lehen **harribitxietako** bat Gaumont etxeak 1930ean ekoiztutako «Au Pays des Basques» dokumental luzea izan zen. Euskal Herriko folklorea, ohiturak eta euskara ere jaso zituen pelikula hark. Orduantxe entzun ziren lehenbiziko aldiz euskal hitzak, kantak eta bertsoak zinearen bitartez.

**ERASO.**- Ataque.  
**LATZ.**- Lakarra, gogorra.  
**ORAIN EZ BEZALA.**- A diferencia de ahora.  
**EKOIZPEN.**- Producción.

**AZTARNA.**- Zantzua. Huella, vestigio.  
**KALE.**- Hutsa. Fallo.

**ZINE AHOSTUN.**- Cine sonoro.  
**HARRIBITXI.**- Piedra preciosa.



## ARGIÑANOKO TXAHAL-EBASLEAK

**3** Ilunabarrean **okilak kurriska** egin zuen «Fuentefría» gaineko **pagadian**. Sei kanpai entzun ziren Bidaurreko eliz dorrean eta lrujotik erantzun zieten beste sei. Argiñanokoek isilik **zirauten**, egun haietako elur eta izotzaren menpe, sakristau zaharrak ez baitzion kuerdarik ematen erlojuari. Aitzitik, sutondoan dago sakristau zaharra, **ilintiarekin** zigarroa piztuz eta sudurreko olioarekin itzaliz. **Antzigarra** pausatu da Argiñano inguruko zuhaitz-adarretan, bakeari deika dagoen maindire zuria bailitzan. Ganaduz, behi eta **behorrez**, beterik daude Argiñanon neguko ikuiluak, ama hotzak eraman dion esneko **moxal** txikia tartean. Jesusek, sakristau zaharrak, esne artifiziala daramaio moxalari. Bidean, **eskailburuko** leihotik begiratu du, elurraren kargak okertutako intxaur-adarrak ikusiz. **Erreten-**-zuloetako urak ere kalean barrena doaz, euren bidean kabitu ezinik. Mendian galdutako edo gelditutako animalien bila atera den semea eta gaineratiko herritarrak ditu gogoan Jesusek, sakristau zaharrak. Zeru beltzak, elur zuriak berriro eraso behar diola adierazten du.


Loizolako bordara **ozta-ozta** iritsi dira, izerditan, Saturnino eta Nemesio. «Redio! Zer da hau?»- esaten du Saturninok eta ate-zirriztutik begira jarri da. Su bajua pizteko ahaleginetan ari da Nemesio. Pasamontainapetik bi azeri-begi besterik ez zaio ikusten Saturninori. Beste eskutada bat zotz botatzen dio suari Nemesiok. Zitxada-hotsetan **bizkortu** da sua eta tximinitik gora atera, kearen espiralari aurrea hartuz, teilatuan etzan beharreko elur-matazak irentsiz.

**Zahatoaren errape zimurak** ez zuen esnerik eman nahi jada. Txistu-hotsean **jaulki** zituen azken **zipriztin** moreak, arestian Nemesiok emaniko haizetan nahasturik. Mokau lehorrak utziriko lakarra bustitzeko **antosin** bila dabilelarik, bordako ateari, argi-**ameñi** bat sar zedin, zirrikitu handixeagoa egin zion Nemesiok. Zakurra, Dringo zeritzana, altxatu eta hiru hankatan jarri zen aurrea. **Zaunka bakanetan** hasi zen gero; zaunka bizietan hurrena. Zaunkak istilu bilakatu ziren hiru lagun korrika eta zalapartaka borda parean behera pasa zirenean. Dringok segitu egin nahi izan zien,

baina Saturnino eta Nemesioren dei bateratuari obeditu zion Dringok.

Zalaparta-hotsa zen ostera ere ingurumarian eta Dringok berriro ekin zion lehengo funtzio berberari. goarda zibilak ziren norbaiti segika eta Dringo hankataraino sartuko zitzaiekeen baldin eta taldeko batek metraileta haren kontra hustu izan ez balu. **Zerraldo** eta buru, belarri eta begirik gabe utzi zuten, tiroz josirik.

Gero **oihu garratzetan** eta metrailetak bordara begira hitz egin zuten: «Salgan, por favor, con las manos en alto, si no quieren seguir el ejemplo de



**TXAHAL.**- Ternero/a.

**EBASLE.**- Eba(t)s(i)+le. Lapurra. Ladrón. Era berean: ikasle, ikusle, adierazle...

**OKIL.**- Pájaro carpintero.

**KURRISKA.**- Chillido.

**PAGADI.**- Pago+di. Hayedo. Era berean: pinudi, belardi, artadi..

**ZIRAUTEN.**- Permanecían. (Aditza: iraun.)

**ILINTI.**- Tizón de fuego.

**ANTZIGAR.**- Izotz-horma. Costra de hielo.

**BEHOR.**- Yegua.

**MOXAL.**- Potro, caballo joven.

**ESKAILBURU.**- Descansillo de la escalera.

**ERRETE.**- Ubidea. Acequia.

**OZTA-OZTA.**- Doi-doi, justu-justu.

**BIZKORTU.**- Suspertu, bizitu. Avivar.

**ZAHATO.**- Bota.

**ERRAPE.**- Ubre.

**ZIMUR.**- Rugoso.

**JAULKI.**- Bota, erori.

**ZIPRIZTIN.**- Salpicadura.

**ANTOSIN.**- Metalezko edalontzia.



ese maldito perro». Nemesiok eta Saturninok ez zuten ezer ulertzen; hala ere, goarda zibilak esandakoa konplutuz, dardarka atera ziren Loizolakako bordatik, dardarka hotzak eta beldurrez.

Kulatakako eta ostikadazko errezimenduaren ondotik Land Roverrean sartu zituzten biak. Bidean hasi zitzaizkien Elemendiko **pinudi barreanean** erdi-larru aurkitu zituzten txahalak norenak ziren galdezka. Galdez edo zaunkaka, nahi duzuen bezala. Txoferraren alboan zihoanak matarife-labana handi bat atera zuen:

-“¿Conocen Uds. esta navaja?”

Biak, **txunditurik**, elkarri begira geratu ziren eta biak bate-batera, koru eginez bezala:



-“¡No, mi sargento!” - erantzun zioten.  
- “Déjelos de mi cuenta” - segitu zuen txoferrak- “Cuando estemos en el cuartel de Abárzuza van a cantar hasta lo que comieron el día de la Primera Comunión”.

Halaxe izan zen. Nemesioren bizkar kolpatuek, kasik ebailduek, eta Saturninoren begi **hanpatuek**, ia-ia itsuek, ezin izan zuten gehiago erresistitu eta txahalak beraiek **larrutu** zituztela eta labana hura beraiena zela «aitortu» zuten. Txahalak «Casa Matías»ekoak zirela esan zuten gainera.

Lainoek ez zioten uzten ilargiari ateratzen. Gaua beltza da benetan zeru aldean. Lurrean elurraren zuriak argitzen du zerbait. Elemendiko pinudiak farol erraldoi bat ematen du, Bidaurre eta Argiñanoko beste mendi eta **sakanei** argi eginez. Haizeak txistu dagi, goiko harkaitz artetik irten eta maldan behera harrapatzen dituen pago-adarrak musukatzean.

Iruñeko epaitegira eraman zituzten. Epaileak, logikoa zenez, «Casa Matías»eko nagusiari, Antoniori, deitu zion. Gogo baino beldur gehiagorekin joan zen Antonio. Eta hari ez zitzaiola txahalik falta esan behar izan epaileari. Orduan brigada bat antolatu behar zela larrututako ganadua norena zen errekonozitzeko: epaile, goarda zibil eta Argiñanoko herritarrek osaturiko espedizioa antolatu eta atera zen mendira. Iritxi zirenean, herritar guztiek aho batez aitortu zuten:

- Bi hauek, Nemesiorenak dira; eta beste hori, Saturninorena.

Epaileak goarda zibilei begiratzen zien eta hauek elkarri.

Ilunabarrean okilak kurriska egin zuen Iturriotz gaineko pagadian. Sei kanpai entzun ziren Bidaurreko eliz dorrean eta Irujotik erantzun zieten beste seik. Argiñanokoek isilik zirauten, egun haietako gertakizunek izaturik edo.

Hurrengo egunean kanpai bueltakoak izan ziren Argiñanon Nemesio eta Saturninoren **errugabetasuna** eta itzulera ospatzeko. Sakristau zaharrak, txahal-pare bat gorabehera, uxatu du egunetako ameskaiztoa.

Rufino Iraola

**AMEÑI.**- Apurra, piska.  
**ZAUNKA BAKAN.**- Noizean behingo zaunka. Ladrado de cuando en cuando.  
**ZERRALDO.**- Hilotza, Cadáver.  
**OIHU.**- Garraisia, deiadarra.  
**GARRATZ.**- Mingotsa, mikatza. Aurkakoa: gozoa.  
**PINUDI BARREN.**- Pinudiko behe-aldea. Parte baja del monte.  
**TXUNDITU.**- Erabat harritu, zurtu. Asombrar.

**HANPATU.**- Hinchar.  
**LARRUTU.**- Larrua kendu. Desollar.  
**SAKAN.**- Barranca.  
**ERRUGABETASUN.**- Inocencia.



## HITZ GEZIDUNAK

|                                                                                   |   |                          |   |                          |                              |                   |                      |                   |                         |
|-----------------------------------------------------------------------------------|---|--------------------------|---|--------------------------|------------------------------|-------------------|----------------------|-------------------|-------------------------|
|  |   | *Izena                   |   | Lan-etena                |                              | Nor-nori forma    |                      | Amaitu            |                         |
|                                                                                   |   | Bultza egin              |   | Bizk., gehiegi           |                              | Zaku txiki        |                      | Epea              |                         |
|                                                                                   |   | →                        |   | ↓                        |                              | ↓                 |                      | ↓                 |                         |
|                                                                                   |   | Trankilak                |   | →                        |                              |                   |                      |                   |                         |
|                                                                                   |   | Dena beretzat nahi duena |   | →                        |                              |                   |                      |                   |                         |
|                                                                                   |   | →                        |   |                          |                              |                   |                      |                   |                         |
| Burugabea                                                                         | ↓ | Gorputz geometrikoa      | ↓ | Nitrogenoa               | →                            | Dauka             | →                    | Kanpo             | →                       |
| Zezen gaztea                                                                      |   | Fruitu erdia             |   | Roentgen                 |                              | Tabernak sarreran |                      | ... izan, ihardun |                         |
| →                                                                                 |   | ↓                        |   | ↓                        | Astia                        | → ↓               |                      | ↓                 | Uranioa                 |
|                                                                                   |   |                          |   |                          | *Deitura                     |                   |                      |                   | Barazki mota            |
| Zer tokitan?                                                                      | → |                          |   | Funtsa, era egokia       | → ↓                          |                   |                      |                   | ↓                       |
| Alde!                                                                             |   |                          |   | Neptunioa                |                              |                   |                      |                   | Halakotzat hartzen dena |
| →                                                                                 |   | Etekinak                 | → | ↓                        |                              |                   | Beldur handi         | →                 | ↓                       |
|                                                                                   |   | Irish Republican Army    |   |                          |                              |                   | Egile atzizkia       |                   |                         |
| Ongailu mota                                                                      | → | Z                        | I | A                        | P                            | E                 | Kontsonante bikoitza | ↓                 | Artsenikoa              |
| ... egin, adoratu                                                                 |   |                          |   |                          |                              |                   | Hestebete            |                   | Basamortuko toki hezeak |
| →                                                                                 |   |                          |   | Uruguayko ibilgai-luetan | →                            | ↓                 |                      | ↓                 | 1.000 kg.               |
|                                                                                   |   |                          |   | Nafarroako ibaia         |                              |                   |                      |                   | Suediako autoetan       |
| Hamabiak                                                                          | → |                          | ↓ | ↓                        |                              |                   | Bete                 | →                 | ↓                       |
| Eta                                                                               |   |                          |   |                          |                              |                   | Denbora hedadura     |                   |                         |
| →                                                                                 |   | Argi, hitz elkartetan    | → | Lurra adierazteko        |                              | EEBB              | → ↓                  |                   | Azkena                  |
|                                                                                   |   |                          |   | Suaren laguna            |                              | Odol taldea       |                      |                   | Arabiar izena           |
| Musikari onak izan ohi dira                                                       | → | ↓                        | ↓ |                          |                              | ↓                 |                      |                   | ↓                       |
| Haren                                                                             |   |                          |   |                          |                              |                   |                      |                   |                         |
| →                                                                                 |   |                          |   | Ados anglosaxioa         | →                            |                   | Arto-irinezko opil   | →                 |                         |
|                                                                                   |   |                          |   | 50                       |                              |                   | Kontsonantea         |                   |                         |
| Zati, kapitulu                                                                    | → |                          |   | ↓                        | Ideia berriei sentibera dena | →                 | ↓                    |                   |                         |



# POEMA PRESOA


Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara -adibidean bezalaxe- eta Juan Kruz Igerabideren "haiku" poetik bat aurkituko duzu.

Tximino handia  
Ahuntzaren arra  
Ikasbide morala ematen duen ipuina  
Zerbaiten muina edo oinarria  
Lo dagoena bere egoeratik atera  
Biharkoaren ondoko egunerako  
Ertz, muga  
Ez okerra  
Etxe barneak eta kaleak garbitzeko  
Kuba, esaterako, bertan dago  
Etorkizuna asmatu  
Zerbait aldean hartuta joan  
Gizakiek horrelako hogeita hamabi ditu  
Harrizko masa handia  
Intsektu bizkarroia  
Zikoitza  
Zenbait ornogaberen gorputza estaltzen du  
Zangoa makurtuz ibiltzen da  
Geldiro  
Jakintza alorren batean bereziki ikasia dena

|   |    |    |    |    |    |
|---|----|----|----|----|----|
| G |    | R  |    |    | A  |
|   | 1  |    | 2  | 3  |    |
|   | K  | E  |    |    |    |
| 4 |    |    | 5  | 6  | 7  |
| A | L  |    |    | I  | A  |
|   |    | 8  | 9  |    |    |
| F |    |    | T  |    | A  |
|   | 10 | 11 |    | 12 |    |
|   | S  |    | A  |    | U  |
|   | 13 | 14 |    | 15 |    |
| E | T  | Z  |    |    |    |
|   |    |    | 16 | 17 | 18 |
| B | A  |    | T  |    |    |
|   |    | 19 |    | 20 | 21 |
| Z |    | Z  |    | N  | A  |
|   | 22 |    | 23 |    |    |
| E | R  | R  | A  | T  | Z  |
|   |    | 24 |    | 25 | 26 |
| K |    |    |    |    |    |
|   | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |
| I |    | E  | R  | R  |    |
|   | 32 |    |    |    | 33 |
| E |    |    | M  |    | N  |
|   | 34 | 35 |    | 36 |    |
| H | O  |    |    | Z  | A  |
|   |    | 37 | 38 |    |    |
| H | A  |    | T  |    |    |
|   |    | 39 | 40 | 41 |    |
| Z | O  |    |    | I  |    |
|   | 42 | 43 |    |    | 44 |
| Z | E  |    | E  | N  |    |
|   |    | 45 |    |    | 46 |
|   | A  | S  | K  |    |    |
|   | 47 |    |    | 48 | 49 |
| H |    |    | R  | R  | N  |
|   | 50 |    |    | 51 |    |
|   |    |    | T  | S  | O  |
|   | 52 | 53 | 54 |    |    |
| A |    | I  | T  |    | A  |
|   | 55 |    | 56 |    |    |

|    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
| 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | 7  |    |    |    |    |
| 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | R  | T  | Z  | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | 32 | 33 | 34 | 35 |    |    |    |    |    |
| 36 | 37 | 38 | 39 | 40 | 41 | 42 | 43 | 44 | 45 |    |
| 46 | 47 | 48 | 49 | 50 | 51 | 52 | 53 | 54 | 55 | 56 |

## JEROGLIFIKOA



*Non zegoen lapurra?*

## LETRA-ZOPA

Aurki itzazu irudi hauei dagozkien hitzak. Ondo gogoan hartu norabide guztietan aurki daitezkeela.



|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | S | A | T | S | I | S | B | Z |
| K | R | A | Z | K | E | R | I | E |
| A | D | R | E | I | L | U | L | A |
| S | A | G | O | M | R | Z | D | R |
| T | S | I | D | G | E | I | O | H |
| E | T | Z | I | Z | E | L | T | A |
| T | R | E | T | D | U | G | S | R |
| X | O | N | Z | A | R | A | U | T |
| E | A | D | L | A | B | R | O | S |





## ARGIAREN MAISU, ARGIAREN LAGUN DIREN HORIEK

**3** «Argazki-lana oso ona du». Askotan, maiz, sarriegi inkluso esan eta entzun dugun esaldi horrek **ospe** txarra du beti beste ezer aipatzekorik ez dagoenean erabili ohi dute/dugulako. Halare, gezur zuri horren atzean bada egia borobila. Filmeei dagokien argi-tonu, nabardura, **tindua** sortzen duten argazki horiek gabe, zinema ez litzateke ezer izango.

Sol Polito, Gregg Toland, James Chang Howe, Nestor Almendros, Vittorio Storaro, Ernest Haller, Haskley Weller, Lucien Ballard, Sven Nykvist, Ballhaus, Phillipe Rousselot, Roger Pratt, Vilmos Zsigmond, Carlo Di Palma, Zhang Yimou, Henning Bendtsen, Gu Changwei, Javier Aguirresarobe...

Zer dute **amankomunean**, zerk lotzen ditu munduko lau izkinetatik gure lerroetara datozen izen horiek? Argiarekiko hartueman misterioitsu, eder, estu, amodiozkoak. Banan-banan harturik, zeluloidezko mundu

bakana aurkituko genuke bakoitzaren kamararen barruan.

Gregg Tolandek, **kasu**, sekulan ezabatuko ez den Greta Garboren **isla gauzatu** zuen ausarti, dotore.

Vittorio Storaro gabe... Bertolucciren **erresuma** irudizkoa agian ez litzateke existituko.

Nestor Almendrosek, Kubatik alde egin zuen katalanak, Truffaut eta Rohmerrekin egin zuen lan. **Lankide** guztiek jainkotzat dute.

«Ingmar Bergman» aipatu orduko, hainbat kolore, hainbat



«Vacas» gurean Carles Gusik sortutako argi-errainuak ziren.



Chen Kaigek amestu zuen «Adiós a mi concubina» baina gu Changweirena da guk jaso genuen islada.

izpi, hainbat itzal datozkigu burura. Berak amestuak, jakina, baina Sven Nykvistek eman zien behar zuten errainu sakona.


Badakigu Zhang Yimou «Ju Dou», «La linterna roja», «Vivir» artelanen egilea dela, baina akaso **gailurrean** dauden beste zinemagile txinatarrentzako argazki-zuzendari lana egin duela jakiteak ustekabea harrapatuko gaitu.

**OSPE.**- Fama, izena.  
**TINDU.**- Colorido.  
**AMANKOMUNEAN.**- En común.

**KASU.**- Adibidez. Por caso, por ejemplo.  
**ISLA.**- Errainua. Reflejo.  
**GAUZATU.**- Zertu, burutu. Llevar a cabo.  
**ERRESUMA.**- Reino.  
**LANKIDE.**- Lan+kide.- Laneko laguna. Compañero de trabajo. Era berean: bazkide, adiskide, ohekide...

**GAILUR.**- Tontorra, erpina. Cumbre.





**Angel Luis Fernandez**en kamarak «*El sol del membrillo*» argitzen du hemen.

Javier Agirresarobe eibartarrak horrenbeste txalo eta laudorio jaso duen «*Días Contados*»en tonu gris metalezkoa asmatu zuen.


Ballhaus esan orduko... Wendersen lanak datozkigu begietara. Eta Scorseseren «*La edad de la inocencia*». Ahaztu gabe Coppolaren «*Dracula*» miresgarria.

«Entrevista con el vampiro» **ahoskatze soilak** musika bat uzten digu errailetan eta gaueko

iluntasunaren dirdirak erretzen digu **ikusmena**. Doinu deabruzko horien autorea Elliot Goldenthal duzu. Philippe Rousselotek **sinatzen** du, aldiz, banpiro biharkoek beharrezko duten **oztadar** ipernukoa.

### HEGOTIK IPAR ALDERA

Alcala de Henaresen urtero den zinemaldi **benazko** eta bikainean omendu egin zuten iaz Espainiako zineman ahantzezinak diren hainbat, zenbait kolore, argi, izpi «gauzatu» dutenak.



**Javier Agirresarobe**k *Erice* eta *Uribekin* lan egin duen eibartarra dugu.

Zerrenda luzea bezain distiratsua suertatu zen. Bota begirada jeloskor eta harritua: Tangerreko eguzkiari bere ixilpeko ditzirak **ostu** zizkion Jose Luis Alcaínek, Víctor Ericeren «*El Sur*»ri lur koloreko malenkonía jarri ziona; Juan Ruiz de Anchía bilbotarra. Madonna izar handi eta bere gisakoak Juan exijitzen du bere bideoklipetan. Hortaz aparte, Al Pacino, Julia Roberts eta Richard Gere ere badute bizkaitar honen abileziaren berri zehatza. Carlos Suarezek anaia duen Gonzaloren lur zeluloidezkoan sartzen ditu bere bi begiak eta zenbait kamara eta «*El detective y la muerte*» **dastatu** genuen mundu berezia ikuskatzen du guretzat...



**Phillipe Rousselot**ek «*Entrevista con el vampiro*»ri jarri zion heriotz dirdiragarriaren **argia**.

Izen gehiagorik bada, jakina. Angel Luis Fernandezek sortuak dira Almodovarren **ezaugarria** suaz tinkaturik daramaten irudiak. Carles Gusik, kamara izaki, biziduna balitz tratatzen duen **iraultzaileak**, gure jendearekin hartu izan ditu konpromezu handiak. Urbizuren «*Todo por la pasta*», Alex de la Iglesiaren «*Acción mutante*» eta Julio Medemen «*Vacas*»en nabartasun kontrajarriak berak aurkitu zituen.

Euskal Zinea hainbestetan argitu duen Kalo Berridi artikulu honetara ekarri eta gero, buka dezagun Henry Aleken maisuak esandako esaldi borobil eta **argitsuak**: «Argitzea»k esanahi bikoa du. Alde batetik, gertatzen dena ikustera ematea esan nahi du. Bestalde, pentsaraztea du barruko zeregin. Gogoeta sortaraztea esangura sakona. Ikuslea hunkitzea izango da horren ezkutuko **adiera**».

**Begoña del Teso**

**AHOSKATZE SOILAK.**- La mera mención.

**IKUSMEN.**- Ikus(i)+men. Vista. Era berean: idazmen, mintzamen, oroimen...

**SINATU.**- Izenpetu. Firmar.

**OSTADAR.**- Ortzadarra. Arco iris.

**BENAZKO.**- Zinezkoa. Serio, formal.

**OSTU.**- Ebatsi, lapurtu. Robar.

**DASTATU.**- Gozatu. Degustar.

**EZAUGARRI.**- Berezitasuna, adierazgarria. Característica.

**IRAULTZAILE.**- Irault(i)+tzaile. Revolucionario. -TZAILE atzizkiak egilea adierazten du. Adibidez: itzultzaile, izkiriatazlaile, garbitzaile... **ARGITSU.**- Argi+tsu. Luminoso. -TSU atzizkiak ugaritasuna edo oparotasuna adierazten du. Adibidez: misteriotsu, ezitstu, urtsu...

**ADIERA.**- Esanahia, esangura. Significado.



## SENDAGILEA NAIZ



ALVAREZ PLAGARO 90

Alfredo Alvarez Plagaro

ZAIIK.- Zaizu (Hitanoa).  
EBAKUNTZA.- Operación quirúrgica.  
OSTE.- Ondo, ondorengo.  
ASTOLAPIKO.- Ergela, kaikua, tentela (irain-hitzak).  
DESKUIDATU.- Equivocarse.

ALTZAIRU.- Acero.  
LANKIDE.- Laneko laguna. Compañero de trabajo.  
BARAILA.- Mandíbula.  
HESTE.- Intestino.  
HESTEGORRI.- Esófago.  
ZAKIL.- Pene.



## POLITIKOA NAIZ



ALVAREZ PLAGARO 90


Alfredo Alvarez Plagaro

**BILKURA.**- Bilera. Reunión.  
**HANDIZKI.**- Aiton-semea.  
 Gentilhombre, magnate.  
**POLITIKOA IZAKI.**- Politikoa  
 bainaz. Pues soy político.  
**LIBRATU.**- Arindu. Aliviar.

**AGINDU.**- Hitz eman. Prometer.  
**ETORKIZUN.**- Geroa. Futuro.  
**HIESA HARRAPATZEA ERE!**- ¡Mira  
 que coger el SIDA!



2




Daniel Aristi Gaztelumendi

ERNEI.- Argi, adi! - ¡Atención, ojo!  
ERASO.- Ataque.  
DIAGU.- Dugu (Hitanoa).  
ILUNABAR.- Arratsa, arrastiria. El  
anocheceer.

ZABADU.- Ireki. Abrir.  
HIL HADI!.- ¡Muérete!






Fernando Torrecilla Leceta



## JEROGLIFIKOA



Non zegoen lapurra?

O - he - azpian = **Ohe azpian**

## POEMA PRESOA

(Juan Kruz Igerabide)

Oilarra egunsentiko  
zeruertzari begira:  
Artizarrak amore eman du

## EZETZ ASMATU:


1.B / 2.C / 3.B / 4.A / 5.A / 6.C /  
7.C / 8.A / 9.B / 10.C / 11.C / 12.C  
/ 13.A / 14.C / 15.B / 16.A / 17.A /  
18.B / 19.B / 20.A



## HITZ GEZIDUNAK

|                                                                                     |                          |   |   |   |   |
|-------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|---|---|---|---|
|  | *Izena                   | J | A | Z | B |
| Buruz gabea                                                                         | Bulaz egia               | B | U | L | T |
| Zeren gabea                                                                         | Geopate geometria        | L | A | S | A |
| Zer izan?                                                                           | Trankilak                | B | E | R | E |
| Aide!                                                                               | Dena berretat nahi duela | K | O | I | A |
| U                                                                                   | N                        | O | N | U | R |
| U                                                                                   | E                        | K | O | R | A |
| U                                                                                   | Z                        | I | A | P | E |
| G                                                                                   | U                        | R | O | D | E |
| T                                                                                   | A                        | G | E | O | U |
| B                                                                                   | A                        | K | A | R | L |
| B                                                                                   | E                        | R | E | O | K |
| A                                                                                   | T                        | A | L | I | R |

## LETRA-ZOPA



SOLUZIOAK: Erle, gizen, antzezle, bildots, sugedorri, zizel, adreilu, sorbalda, isats, ikastetxe.



# HOROSKOPOA

3

## ARIES

Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra  
Lagun arrotz bat ezagutuko duzu.  
Hamalika galdera egingo dizkizu  
euskara eta euskaldunen gainean.  
Hala, euskara ikasteko **harra**  
biziagotu egingo zaizu eta  
euskaltegiko irakasleari etxerako lan  
gutxi xiko ezartzen duela adierazi ere  
bai.

## TAURUS

Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra  
Bat-batean zure egoera aldatu  
egingo da. **Maitalerik** ez baduzu,  
topatu egingo duzu. Ezkongai  
bazaude, beste ezkongai batekin  
batuko zara, eta ezkondata  
bazaude... ai ene! Zu bezalakoekin  
ez dago egoerari gogor egiterik.  
**Patua**, patua duzu lagun.

## GEMINI

Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era  
Itsas-haizearen egarriz mendirik  
mendi kostaldera joko duzu.  
Nazkatuta zaude lurralde lehorrean.  
**Uhin**en ibilia maite duzu.  
Mugimendua, Jendetza. Joan-  
-etorria. Kaleetako **beha**ztopak eta  
gurutzaketak. Whiskiak ez zaitu zeure  
onera ekarriko.

## CANCER

Ekainaren 22tik Uztailaren 22ra  
**Inozoa!** Txakurrak ipurdian haginkada  
egingo dizu. «Erne Zakurrarekin»  
diotsan txartela irakurri arren, ez  
baitiozu jaramonik egingo. Hagin  
zorrotz zuri-beltzak zure azal leunera  
hurbildu orduko, **ihesbiderik ezean**  
aurkituko zara.  
Telefono erotikoak zorte ona  
iragartzen dizu.

## LEO

Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra  
Arratoitzarrez beteriko gela narras  
batean zaudela amets egingo duzu.  
Ametsa egia bilakatuko ote da? Zure  
baitan dago kontua. Egia bihurtzea  
nahi ez baduzu, Penagarikanori  
zuzendutako bertso bat asmatu  
beharko duzu lehenik, eta ondoren  
**ozenki** kantatu.

## VIRGO

Abuztuaren 24tik Irailaren 23ra  
Hezurretan zaudela! Urdaiazpikoa  
galanki jan ogitartean. Zeure onera  
berehala itzuliko zara. Erne ordea!  
**Mihi** gaiztoren bat zelatan edukiko  
duzu. Alabaina, zuk jan beste hari ere  
eskaintzen badiozu, berehala  
uxatuko duzu sasi-zelataria. **On egin**  
dizuela!

## LIBRA

Irailaren 24tik Urriaren 23ra  
Zure portaera **gaiztosten** dut. **Hortxe**  
**dago gakoa**. Zuk beste inork ez  
dezake hari konpondu. Nola?  
**Losintxatuz?** Zerorrek jakingo duzu.  
**Gezurrak bidea motz**.  
Ilargi beteak aspaldian espero duzun  
hura ekarriko dizu. Botoiak ongi lotu.

## SCORPIO

Urriaren 24tik Azaroaren 22ra  
Luxuzko soineko bat oparituko dizute.  
Kolare arras hilak izango ditu haatik, eta  
lufuz jantzita zabitza irudituko zaizu.  
Egunak joan ahalean, gero eta  
hunkiberago sentituko zara. Ezerezago.  
Lasai, ordea, badugu formula bat eta.  
Zazpigarren bizitzako leiho batetik bota.

## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik Abenduaren 21era  
Zure ideiak utopia huts dira, ezin  
gauzatuzkoak. Non duzu burua? Ez  
irakurri horrenbeste, begiak minduko  
zaizkizu eta. Ondokoak **berakatzak**  
ipurditik ateratzen ari dira.

## CAPRICORN

Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra  
Gaur lanera kotxean joaten bazara,  
bidean geratuko zara ez atzera ez  
aurrera. **Trenez joatera**, ordu bete  
beranduago etorriko zaizu. Txirindaz  
iritxi nahiko bazenu, gurpila zulatu  
egingo litzaizuke. Noranahi joateko  
ere, oinez ibiltzea gaur egokiena.

## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra  
Betiri Santzek baino jateko gogo  
haundiagoa duzula? Orain  
oraingoak, eta gero gerokoak! Sartu  
bezala gero irfengo dira! Zer arraiol!  
Leporaino aseta zaudenean, utzi  
denak eta zoaz urre bila. Zorte ona  
zain daukazu.

## PISCIS

Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra  
Ezetx ba! Ez dela egia esan dizutena!  
**Balizko olak burdinarik ez!** Biraoka  
segitzen baduzu haatik, batek daki  
zer gertatuko den! Azukrearen ordeztu  
kafesneari sakarina bota izeaiozu.

**HAR.**- Gusano.

**INOZO.**- Inuxentea, xaloa.

Ingenua.

**IHESBIDERIK EZEAN.**- Ihesbiderik  
gabe.

**GAITZETSI.**- Txartxat eman.

Reprobar.

**HORTXE DAGO GAKOA.**- Ahí está  
la madre del cordero.

**LOSINTXATU.**- Lausengatu, limurtu.  
Engatusar.

**TRENEZ JOATERA.**- Joanez gero,  
joaten bazara.

**MAITALE.**- Amorrantea. Amante.

**PATU.**- Halabeharra. Destino.

**OZENKI.**- En voz alta.

**UHIN.**- Olatua. Ola.

**BEHAZTOPA.**- Estropozoa. Tropiezo.

**MIHI.**- Mingaina. Lengua.

**ON EGIN DIZUELA!**- ¡Que os  
aproveche! Era berean: on egin  
dizula, on egin diola...

**BERAKATZ.**- Baratzuria. Ajo.


**OLA.**- Ferrería.

**BALIZKO OLAK, BURDINARIK EZ!**-

(Esaera zaharra) Benetako ola

behar da, ez balizkoa, burdina  
nahi bada.





**HABE**  
Helduen Alfabetatze eta Berreskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna

